

# EUSKADIKO HONDARTZAK

HONDARRIBIA HONDARTZA

GAZTETAPE HONDARTZA

MALKORBE HONDARTZA

SANTIAGO HONDARTZA

IBAIZABALEN ESTUARIO ETA BOKALAREN  
ERDIALDEKO HONDARTZAK

LA ARENA HONDARTZA

EREAGA HONDARTZA

GORRONDATZE HONDARTZA

ARITXATXU HONDARTZA

ARRIGORRI HONDARTZA

BARINATXE HONDARTZA

LAIDATXU HONDARTZA

ONDARRETA HONDARTZA

ZURRIOLA HONDARTZA

ORIBAZAR HONDARTZA

ANTILLA HONDARTZA

KONTXA HONDARTZA

ZARAUTZ HONDARTZA



LAIDA HONDARTZA

LAGA HONDARTZA

KANALA HONDARTZA

TOÑA HONDARTZA



# ESPECIES EXÓTICAS INVASORAS-ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEAK

## HORIEN SARTZEA EKIDIN!



Bisoi amerikarra



Panparen lumaduna



Floridako dortoka



Karamarroi gorria



Liztor asiarra

**araba álava**  
foru aldundia diputación foral

**ESPEZIE EXOTIKO INBADITZAILEEN HEDAPENA ARRISKUTSUA  
DA BIODIBERTSITATEARENTZAT. EZ SARTU**



**EUSKAL HERRIKO  
NATURA**

IRAUNGITZEKO ZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK DEFENDATZEKO ELKARTEA

**EUSKO JAURLARITZA** **GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua


## ZURE NATUR ETA ZOOLOGIA ALDIZKARIA

### AURKIBIDEA

#### 150.zk - 2024ko -UZTAILA-ABUZTUA



|                                                                                    |    |
|------------------------------------------------------------------------------------|----|
| Ibaizabalen estuario eta bokalaren<br>erdialdeko hondartzak.....                   | 4  |
| Kobarongo kala; La Arenako<br>estuaria padurak eta hondartza.....                  | 6  |
| Zierbena hondartza.....                                                            | 7  |
| La Arena hondartza.....                                                            | 8  |
| Barrualdeko hondartzak, abarren<br>eskuineko ibarrean.....                         | 10 |
| Areetako hondartza.....                                                            | 11 |
| Ereaga hondartza.....                                                              | 11 |
| Arrigunaga hondartza.....                                                          | 12 |
| La Galeako itsaslabarrak eta<br>Tunelboka edo<br>Saneamientoko kala.....           | 13 |
| Gorrontatze hondartza.....                                                         | 14 |
| Arrietara-Atxabiribil hondartza.....                                               | 16 |
| Barinatxe hondartza.....                                                           | 17 |
| Meñakoz hondartza.....                                                             | 18 |
| Barrika hondartza.....                                                             | 19 |
| Butroe ibaiaren estuarioko<br>kanpoaldea, Plentzia eta<br>Gorlizek hondartzak..... | 20 |
| Bakio hondartza.....                                                               | 22 |
| Aritxatxu hondartza.....                                                           | 24 |
| San Antonio hondartza.....                                                         | 26 |
| Toña hondartza.....                                                                | 27 |
| Laidatxu hondartza.....                                                            | 28 |



|                                      |    |
|--------------------------------------|----|
| Kanala hondartza.....                | 29 |
| Kanalape hondartza.....              | 30 |
| San Kristobal hondartza.....         | 30 |
| Laida hondartza.....                 | 31 |
| Laga hondartza.....                  | 32 |
| Ea hondartza.....                    | 33 |
| Ogeia hondartza.....                 | 34 |
| Isuntza hondartza.....               | 35 |
| Karraspio hondartza.....             | 36 |
| Arrigorri hondartza.....             | 37 |
| Saturrarán hondartza.....            | 37 |
| Portua eta Burumendi hondartzak..... | 38 |
| Ondarbeltz hondartza.....            | 38 |



|                            |    |
|----------------------------|----|
| Deba hondartza.....        | 39 |
| Itzurun hondartza.....     | 40 |
| Santiago hondartza.....    | 41 |
| Gaztetape hondartza.....   | 42 |
| Malkorbe hondartza.....    | 43 |
| Zarautz hondartza.....     | 44 |
| Oribazar hondartza.....    | 45 |
| Antilla hondartza.....     | 46 |
| Ondarreta hondartza.....   | 47 |
| Kontxa hondartza.....      | 48 |
| Zurriola hondartza.....    | 50 |
| Hondarribia hondartza..... | 51 |



**EUSKAL HERRIKO  
NATURA**

**Zuzendaria:** Fernando Pedro Pérez.  
**Erredakziorua:** Ruben B. Caballero.  
**Kolaboratzaileak:** Nerea Urtaran, Miren Alustiza, Oskar Azkona, Fidel Korta.  
Inés Zubia, Jon Zubiri, Elena Azkarreta, Xabier Aramburu, Kepa Alustiza.  
**Argazkilari-taldea:** Edurne Urkizu, Aitor Zubizarreta, Xabier Urreta, Izaskun Loidi.  
**Maketatzailea:** Cristina Urionabarrenetxea.  
**Legezko gordailua:** BI-2452-02.  
**ISSN:** 1695-4645 **Aleak:** 2.000

**Erredakzioa:**  
Av. Madariaga, nº. 47-6º C - Esc.1 - 48014 BILBAO.  
Tel: (94) 4 75 28 83. e-maila: adeve.1991@gmail.com

**Argitaratzailea:**  
Iraungitzeko Zorian Dauden Espezieak  
Defendatzeko Elkarte.



**EHAA-1996ko otsailak 7, asteazkena.**  
**3/1996 DEKRETUA, urtarilaren 9koa, Elkarte**  
**herri-onurakoa dela aintzatesten duena.**



**HARPIDETZA-ORRIA**

Urteko kuota: Hamabi ale urtean: 36 euro. TLF: 94 475 28 83



## IBAIZABALEN ESTUARIOKO ETA BOKALAREN ERDIALDEKO HONDARTZAK

Ibaizabalen estuarioko hondartza bakarrak itsasadarren eskuinaldean daude, lehenago ekerraldean ere egon ziren arren: Portugaletekoa, aspaldi desagertua, oso ezaguna zen itsasadarren ahoko harea-bankuagatik oztupo arriskutsua zelako nabigaziorako. Bertara joaten ziren bainatzera Bilboko goi-mailako jendeak XIX. mendean. Garai berean, Areetako aldean iriste zaileko harea-tzak eta padurak baino ez zeuden, eta Getxoko gainontzeko inguruetan itsasorako biderik ez zuten baserriak besterik ez zegoen. La Avanzadan salbu, hantxe baitzegoen Algortako arrantza-portu txikia.

Hala ere, gizakiak sano aldatu du hango ingurunea: Neguri eta Areeta sortzeko, padurak lehorte eta Gobelas ibaia bideratu zen, Udondorekin bat egin arte. Izan ere, orduko paduretatik dagoen arrasto bakarra Bolueko hezegunea da, gaur egun ur geza hutsez betea; geroago, 1913an, arriluzeko portuaren eta kaiaren obrak bukatu ziren, Evaristo Churrucaren proiektuaren arabera; gaur egun superportuaren lanak daude martxan, eta haiekin batera Zierbenako kala naturala ere desagertu den arren, herri horretan bertan egin den hondartza artifizialean harea-tza txiki bat kontserbatu da, urtetik urtera zaindua.

Itsasadarren lorratzak eragina du eskuinaldeko Areetan, Ereaga eta Arrigunako hondartzetan, baita Arriluzeko pasealekuaren eta Algortako kontradikearen artean ikusten den harea-tza eta lokatzeko gune txikian ere (lehengo La Bolako hondartza, Zugatzarteko pasealekua eraiki arte Areetakoarn zatia zena). Biologikoki, hondartza horiek, bereziki lehenengo biak eta La Bolakoa, oso eraldatuak daude gaur egun. Espezie eta indibiduen urritasunak



haraino heltzen diren uretako hiri eta industri-kutsaduraren norainokoa erakusten du, leku berean egoteagatik kutsadura bentosean metatzen delako. Arazoaz jabetzeko, kontuan izan behar da hasierako egoeran Nerbioi aldeko fauna Gernikako itsasadarrekoa bezain aberatsa eta anitza izango zela, areago Nerbioiko emaria eta ubidearen tamainagatik. Dena den, azken hamar urteotan egoera ekologikoak hobera egin du inguruko hondartzetan, Nerbioi-Ibaizabal arroko eraldaketa industrialagatik eta Bilbako-Bizkaiko Ur Partzuergoak saneamendu osorako bultzatutako planagatik.

Azaleko korronteak iparreki alderantz eramaten ditu Abrako estuarioaren ekarpen gehienak, eta handik urrundu ahala, elkarren antzekoak diren hondartza eta kala batzuk ukitzen ditu: La Galea, Tunelboka edo Saneamiento, Gorrondatze (Aizkorri), Barinatxe, Arrietara-Atxabiribil (Sopela), Meñakoz, Barrika eta Gorliz, azken hau Butroeko bokaletik haratago (Plentziako hondartza ez dago sail horretan, sartuta, duen Ostrea-Mercierellaren

komunitatea erabat desberdina baita besteen aldean). Beraz, behin aztertutik haien artean dauden maila apalagoko desberdintasunak (arroka margokare-dunen eta beren txerto diapirikoak edo lehorretik heltzen den ur geza) eta lekuan lekuko faunaren komunitateak (*Mytilus-Corallina*, adibidez), esan daiteke gainontzeko desberdintasunek, hein batean, zerikusia dutela Nerbioiko bokalerainoko distantziarekin:

Bilboko itsasadarrekin urrundu ahala aniztasuna handiagoa da. Adibidez, ekinodermatuak eta beste talde batzuk gero eta gehiagotan ikusten dira. Bestalde, ondoko hondartzetan ugari diren beste espezie batzuk urriagoak



dira: Cirriformia taldeko poliketo uztariak eta sarraskitik edo zaborretatik bizi diren beste poliketoak bakanagoak dira Barrikan eta Gorliz.

Fenomeno deigarria da, bestalde, fauna-komunitateen banaketa asimetrikoa hondartzetan: mendebaldeko harkaitzetako fauna ekialdekoetan baino urriagoa eta eskasagoa da. Beharbada, Mendebaldean pantaila gisako efektua dago, baitzek berek sortua; beste aldean, ordea, nabarmenagoa litzateke Bilboko itsasadarreko uren eragina, bere ekarpenak, ordurako behar bezain diluituak egonik, ongari antzekoak bailirateke.

Badago beste fenomeno interesgarri bat, Abraren inguruko hiru hondartzatan antzeman daitekeena (Arrigunaga Saneamiento eta Gorrondatze -Aizkorri-): berez haletako harea aske egon arren, zementatuz joan da neurri handian. Arrazioa 1900etik Labe garaietatik iritsitako zeparen kaltzio karbonatuaren hauspeatzea da. Eragina



oso nabarmena zen Arrigunagan, baina gaur egun ez da nabaritzen, hondartza berreskuratzeko harea askearekin estali baitute.

## LA ARENA, PLENTZIA/GORLIZ, MUNDAKA ETA BESTE ESTUARIO TXIKIAGOEI LOTUTAKO HONDARTZAK, DUNA-SAILAK ETA PADURAK

Nahiko handiak diren beste estuarioak ondoko ibaienak dira: Mayor edo Mercadillo (La Arenako estuarioa), Oka-Butroe (Plentzia/Gorliz) eta Oka (Gernika-Mundaka-Urdaibaiko estuarioa). Nahiko ondo kontserbatuta daude, eta haietan eremu eta elkargune ekologiko naturalak ikusten dira. Estuarioetan edo ur gazia -gutxi-asko- duten lekuetako komunitateek nolabaiteko gaitasuna daukate gaitasunaren aldaketa ziklikoari moldatzeko, *Mytilus* dagoen arren, haren ordeztu gero eta ugariagoak dira beste ostren espezie batzuk (*Ostrea edulis* eta *Crassostrea angulata* espezieak dira hemengoak edo hemengo uretara eginak). Bertan dauden molusku gasteropodo eta kasku biko asko haren edo lokatzean sartzen dira, eta batzuetan kolonia ikaragarri handiak osatzen dituzte: *Cyclonassa nerita*, *Cerastoderma edule* eta *Scrobicularia plana*; beste asko ere (tartean itsasertzearen azpialdeko batzuk) korronte indartsuak mareartekoa eramaten ditu-enean bil daitezke, bizirik edo maskor hautsetan. Lokatzean ohikoa da Macomaren komunitatea. La Arena hondartza, mendebaldeko muturrean, nahiko berezia da, segur aski han ez direlako hain nabarmenak



Ibaizabalen itsasadarreko ekarpenen eragina; inguruan nagusi diren korronteek ekialderantz bultzatzen dituzte hondakinak, eta horregatik du hondartzak horrenbesteko gaitasuna suspertzeko. Ekialdeko puntan dagoen harkaitzeko fauna aberatsa da, eta muskui-lua da espezie nagusia. Barrualdeko duna-sailaren atzean

ikusten diren padurak nahiko egoera onean daude, industria-eraikinen inguruetan izan ezik.

Itsasadarren ekoizpen handiko eremuak dira. Plentzian, adibidez, aspalditik bildu izan dira berberetxoak eta izkirak (*Cerastoderma edule* eta *Palaemon*, hurrunez hurren), eta gaur egun kasku bikoaren haztegi bat dago. Urdaibaiko ostrea-haztegiak, ordea, abandonatuta daude. Izan ere, Mundaka aldean ingurua nahiko ongi kontserbatu denez, ostrea naturalak daude. Beste espezie batzuk: lanpernak (itsasadarren ahoan, Ogoño lurmuturrean), muskuiluak, ostrak (oso ugariak Sukarrieta-Txatxarramendin), berberetxoak, muxilak (*Venerupis decussata*) eta magurioak (*Littorina generokoak*).



## KOBARONGO KALA; LA ARENAKO ESTUARIOA (PADURA ETA HONDARTZA) ETA INGURUKO HARKAITZA

Bizkaian, mendebaldeko kostaldeko elementu nagusiak haitzezko labarrak eta kala arrokatu txikiak dira. Bertan, Kobaronen, ez da harearik metatzen, kostaldea ez baitago horretarako behar bezain babesturik. Alde horretatik oso interesgarria da, haitzezko substratu mota guztiak eta haiei lotutako landareak eta fauna azter daitezkeelako. Kostaldeko tarte hau oso famatuta da Gelidium sesquipedale alga gorria biltzen delako mareartekoaren azpiko zelai zabaletatik. Maiz ekaitzak erazita helden da ertzeroa, baina ebaki ere egiten da. Behin iharturik, kosmetika eta elikagaigintzarako produktu natural asko egiten dira berarekin (agar-agar eta beste). Kobarongo kaletarainoko bidea ez da erraza, eta kontuz hurbildu beharra dago.

Klorofito harizpidun ezberdinek eta *Ulva rigida* eta *Codium adherens* espezieetako indibiduoek harkaitz tarte zabalak estaltzen dituzte. Arre-gorri koloreko alga soropilduak ere hazten dira bertan. Itsasbeheran, urez batetik geratzen diren azpiletan eta arrakaletan *Corallina elongata* eta *Bifurcaria bifurcata* ez ezik, anemona, molusku eta ekinodermatu asko geratzen dira.

Kobaronen ondoren, ekialdean, La Arenako hondartza dago, Mayor edo Barbadun ibaiaren estuarioan. Ibaia Muskizko udalerrian dago, Kantabriarekiko mugaren eta Ibaizabalen estuarioaren artean, eta lehen, Meatzaldeko inguru honetan garbitzen zen mineralaren isurkiak bertara botatzen zituzten.

Hondartza ia Km 1 luze da; hareatza zabal arre-gorrixa da, neurri batean metaturik daukan burdinagatik. Oso hondartza babesgabea denez, olatuek gogor jotzen dute, eta ekialdeko haitzetan alga eta makroornogabe asko hazten dira. Atzealdeko duna-saila, gaur egun lehengorotuta, nahiko ondo kontserbatu da, berezko landaredi eta guzti.



Estuarioan, Pobefiaren ondoan hain zuzen, padurak erreak bat isurtzen den senaiarekin lotuak daude; ondo kontserbatua daude, eta haietan eta Urdaibaiko paduretan Bizkaiko fanerogamoen eremu zabalak hazten dira. Landare mota hori itsasoaren eta lehorren bitartekoa da eta ongi finkatutako lurzorua behar du erroak egiteko. Horrexegatik hazten da estuarioetako gunek babestuenean. Izan ere, babesgabe dauden lekuetan hondoa hareazkoa edo arrolazkoa izaten da, partikula finagoak korrontek eramatzen baititu.

Pobefia aldean paduraren egitura eraldatua dago: orain murrutik bereizten du padura errekatik eta estuariotik, eta ura zubi baten azpitik iristen zaio. Murrutaren gaineko bidea bidea Laguntzako Andra Mariren ermitaraino doa, lehen uhartea izan zen haitz bateraino. Haitzaren eta labarreko beste aldearen artean zegoen paduraren zatia lurperatu zuten, eta orain aparkaleku eta egoitza bat daude itsasora begira.

La Arenako estuarioaren banean, planktonak gazitasun gorabehera handiak jasaten dituen estuario batekoa da. Udan, ibaien emaria murriztaz geroztik, marea gorriak ikusten dira, alga dinoflagelatuak erraz bazten baitira. Orain arte gertatu diren marea gorriak ez dira toxikoak izan.

Estuarioaren erdiko ubidearen eta lehorren artean dagoen lokatzean ugari dira paduretako karramarroak (itsas kilkerak), arrantzaleek beita egiteko nahiko erabiliak. Itsasbeheran, karramarroek ezkutatzeko egiten dituzten zuloak ikusten dira.

Estuarioko ohiko elkar gunea ikusi zen: nagusi dira Hediste diversicolor, Scrobicularia planarekin batera, baita Peringia ulvae-Cerastoderma edule pareak ere. Hondartzako eskuinaldean dagoen harkaitzean substratu mota horretako ohiko organismoak ageri dira itsasbeherarekin: Klorofitoak (*Enteromorpha*, *Ulva* eta *Codium*), errodoficeoak (*Asparagopsis armata* eta

*Corallina elongata*) eta feoficeoak besteak beste. Faunari dagokionez, *Mytilus galloprovincialis*en populazio finko bat dago. Halaber, poliketo serpulidoak eta hainbat espezieetako lapak ikusi ziren; *Eulalia viridis* espezie sarraskijalearen poliketo filodoziadoak ere ugari dira, eta beste animalia batzuek egindako zuloak agertzen dira (*Lithophaga* motako molusku zulgileak eta *Phascolosoma granulatum* espezieko sipunkulidoak). Ez zen honakorik aurkitu: anemonak, ekinodermatuak, nemertinoak, eta poliketo sedentario ez-tutudunak. Bentosa aztertutik, esan liteke La Arenako hondartza nahiko garbirik dagoela, eta kutsadura organikoa ez dela handia.

Itsasbeherako putzu txikietan zizare txiki asko hazten dira, alga sinbionteekin batera (zooklorelak), eta ura berde biziz tindatzen dute. Euglonofizeoek ere berde kolorea ematen diote urari, eta diatomeoak badira nagusi, kolorea hori-arrea da. Mikroskopioz ikusi behar dira. Mugimenduaz gain, batzuetan ikusten da nola askatzen dituzten haiek sinbiosian bizi diren alga klorofitoak.

### Zierbena

Ibaizabalen estuarioko kanpoko ezker aldean bezala (Abra), Zierbena ere oso eraldatuta geratu da superportuko obrak direla medio. Lehen Abrakotartetxo bat zen, arrantza-portu txiki eta tipikoa, oso famatua harrapatzen ziren itsaskientatik: buiak, txamarak... Kala txiki baten babesean eraiki



zen, Serantes mendiko itsaslabarren eta Luzeko lurmuturraren artean. Oso liteke erromatarrek berekera kala hau erabili izana inguruko mineralak ustiatzeko. Gaur, ordea, aldatuta du fisonomia: erabat berriturik, superporturako errepideak itxita dauka Zierbenako portua Luzeko lurmuturreko dikearen aldean. Sartzeko eraiki diren bi ahoen artean, eta portura begira, hondartzatxo artifizial bat egin da, igarobideari eusten dion murrutak babestua. Harea berritu egiten dute aldiria. Dike eta kai berri guztietan agertu da dagoeneko otsasertzeko zonazioa. Zierbenako senaia naturala aspaldi desagertu zen arren, badugu marearteko haitzetako faunaren berri: fauna ohikoa zen ur geza jasotzen duten esposizio ertaineko arroketan. Halaxe adierazten zuten hango ostrek.

## ZIERBENA HONDARTZA

Superportuko barraderei berriak egin ostean, Zierbenako portuan hondartza artifizial txiki bat sortu da. Garai batean ere hondartza antzekoa bazen bertan, itsasoak gogoz pila-tzen baitzuen hondarra arrantza portuaren muturrean.

Zirkuluerdi formako hondartza artifizial honetan eguzkia hartzeko guztiz egokiak diren porlanezko maila handiak eraiki dituzte, eta hondarrez estali horien azpiko hondartzagunea. Hondar horixka du, ez finegia, eta errekarrik ere badu tartean. Neguan, ageri-agerian gelditu ohi dira hondar azpiko haitzak, itsasoak eraman egiten baitu harea.

Bainua arriskugabea da Zierbenan, ez baitago bertan olaturik, ezta tirain edo erresakarrik ere. Plastikozko baliza batek mugatzen du bainugune txikia, eta igerilariak hobe dute muga horretatik aurrera ez abiatzea, guztiz arriskutsuak izan daitezke eta gora eta behera dabilztan



itsasontziak.

Itsasbehera erabatekoa denean, asko murrizten da bainugunea, eta agerian gelditzen dira orduan hondartza artifizial honen "eskeletoa" osatzen duten hormigoizko hesia eta harrizko blokeak, bainua oztopatuz. Zerbitzu eta ekipamendu urriak ditu hondartza artifizial honek.



## ITXASORANTZ IREKIAGO DAUDEN HONDARTZAK ETA KALAK: BAKIO, BERMEO-MUNDAKA, LAGA, OGELLA, KARRASPIO ETA ARRIGORRIKO HONDARTZAK; KOBARON, ARMINTZA ETA ARRIBOLASEKO KALAK

Guztiak daude bereziki iparraldera begira. Marearteko lautada, mota desberdinekoa dute. Komunitateen artean ondokoak daude: ekinodermatuak (trikuak, izarrak, ofiurak eta holoturiak), moluskuak (batez ere lapak eta muskuiluak); itsas libreko ia orno-gabe mota guztiak aurki daitezke leku babestuetan ondo bilatuz gero, esate baterako zirrikitu-arraketaan eta olatuei bizkar emanda dauden zuloetan. Lekurik astinduenetan, ordea, lanpernak daude (Ogoño lurmuturreko labarrak, Lagako hondartzaren ondoan), eta batzuetan, oso leku babestuetan, erruz hazten dira poliketo arrezifegileak (*Sabellaria alveolata*, adibidez). Itsas erbiak ere bizi dira inguru horretan (*Aplysia*).

### Kostalderatutako organismo-komunitateak

Hondartza hauetan ez ezik, leku babestuagoetan eta kostaldeko harkaitzetan ere agertu ohi dira itsasertzaren behealdeko organismo asko, ekaitzek eta marea biziak mareartekora eramanez. Kostaldera ekarritako komunitate horrengatik ez balitz, murgildu beharko genuke haietako izakiak ikusi ahal izateko. Ekaitza dagoenean, marearteko organismo ugari ere iristen dira mareen goiko mugaldean. Atertu duenean hondartza edo haitzezko lautadetan osteratxo bat eginez gero alga arreen espezieak ikus ditzakegu: *Halidrys siliquosa*, *Astrophyllum nodosum*, *Himanthalia elongata*, *Laminaria ochroleuca*, *Saccorhiza*



*polyschides* eta *Colpomenia*. Ageri dira, halaber, alga gorriak (*Gelidium sesquipedale*, *Plocamium cartilagineum* eta *Sphaerococcus coronopifolius*) eta leku sakonagoetako animalia asko (molusku holoturiak eta aszidiak). *Zostera* fanerogamoa ere maiz heltzen da multzotan kostaldera.

## LA ARENA HONDARTZA

**Udalerria:** Muskiz eta Zierbena.  
**Luzera:** 966 m.  
**Azalera:** Itsasbeheran, 343.382 m2.  
**Itsasgoran,** 86.382 m2.

Muskiz eta Zierbenako lurrak hartzen ditu –ia erdi bana– Bizkaiko hondartzarik handien eta jendetsuenak. Haizetsuena eta arriskutsuena ere bada. Itsas handiko egunetan olatuek gogor jotzen dute itsasertzean, eta zurrunbiloak zein erresaka ere indar handikoak dira. Adi, beraz, bainuzaleok... Beste berezitasun batzuk ere baditu La Arenako hondartzak. Itsasoak hondoa etengabe mugiarazten duenez, hori ez da batere erregularra, eta konturatu gabe gal daiteke oina. Igerilari trebe ez direnek ezusteko ugari izan ohi dituzte hori dela eta.



Hondarra, berriz, ez da finegia eta kolore gorrixka du, harearekin nahastu izan den burdin-mineralaren ondorioz. Izan ere, XX. mendearen hasiera arte bertan kargatzen zen ontzietan minerala, eta garabi handi bat da oraindik horren lekuko.



Deigarria da, halaber, hondartzak itsasbeheran hartzen duen azalera izugarria –hirukoiztu egin ohi du itsasgora-koarena–. Bisitari gehienak hondartzaren erdi aldean eta eskuineko aldean jartzen dira. Ezkerreko aldean Barbadun ibaia itsasoratzen da, eta marea aldaketa uneetan korrante oso arriskutsuak sortzen dira bertan. Itsasbeheran, aldiz, batere korronterik gabeko bainugune zabala sortzen da hondartzaren alde horretan. Hondartza oso eguzkitsua ere bada La Arena, irteten denetik (Kobaron aldetik) sartzen den arte jotzen baitu eguzkiak bertan. Une zoragarria izan ohi da ilunabarra itsasertzean ibilaldi luze eta lasaiak egiteko. Hondartzaren inguruko lursailak ere interesgarriak dira.

Gizakiaren eraginak asko kaltetu ditu garai batean oso zabalak ziren dunak, baina oraindik ere tinko eusten diote, eta gogoko du askok duna inguru hori mahaiak bertan jarri eta bazkaltzeko. Ekipamendu ugari dituen egongunea ere bada bertan. Astron inguruko eskuineko aldean, berriz, marearteko zabalgunek handia dago, Punta Luceroraino heltzen den harrizko hondartza sortzen duena. Fauna oso aberatsa du La Arena hondartzako gunek honek, nahiz eta ez izan oso eroso eguzkia hartzeko edota bainurako. La Arena zerbitzuz eta ekipamenduz ondo hornitutako hondartza da, eta oso egokia surferako eta urpekaritzarako. Boleibolerako prestatutako gunek ere baditu.





## BARRUALDEKO HONDARTZAK, ABRAREN ESKUINEKO IBARREAN



Nerbioi-Ibaizabalen hirien eta industriaren presioak itzela den arren, paisaiaren balioa handia da ibaia-aren eskuinaldeko hainbat hondartzetan; hala ere, haie-  
tan bizi diren marearteko orgaanismoen komunitateak behar baino motelago agertzen dira, ura arreagoa eta eraldatuagoa baita. Bertan, bisitatzeko modukoak dira Areetako hondartza, La Bolako hondartza txikia, Ereagakoak (ia 900 metro luze dira guztira) eta Arrigunagakoak. Estuarioaren barnealdeko ohiko hondartzak izanik, era guztietako substratua dute, lokatze-  
koa leku babestuenetan eta haitzezkoa astinduenetan. Marearteko haitz-tarte luzeenak hondartzetako eskuinaldean daude. Kutsadura dela-eta alga eta animalia-  
komunitateak patalagoak badira ere, ikusten dira haitzetan fukazeo-sortak, muskuiluak lapak eta itsas ezku-  
rrak. Karramarro asko ere dabilta haitzen artean. Lokatzean, ordea, muxila fina (*Venerupis decussata*) eta berberetxoak (*Cerastoderma edule*) bizi dira. Abrako eskuinaldea uherragoa da, hor isurtzen delako estuarioko ur gehiena itsasora. Euri sasoi-  
an ibaietako

urak diluituago uzten di itsasokoa. Kostaldeko plankto-  
na ugari da, eta berarekin batera ornogabeen eta arrai-  
nen larba eta arrautzak daude. Beraz, oso leku egokia  
larbak haz daitetzen eta arrain helduek ere jana bila  
dezaten. Ereaga eta Arrigunagako egoera kaskar  
samarra zen 1978an, hango garaian Ibaizabalen itsasa-  
darra hirietako eta industriako hondakin-uren hustubide  
handi bat zelako, eta ondorioz denetariko hondarrak  
helden ziren flotatzen. Horretaz gain, portuko eragina  
ere nabaria zen hondartzetan: haitzak galipotez eta  
bestelako hondarrez ziki-zikin zeudenez, ez zuten ia  
bizi arrastorik erakusten. Nereido (*Perinereis cultrifera*)  
eta karramarro beltz asko (*Pachygrapsus marmoratus*)  
ikusten ziren, hondakinjeleak direlako baina, kaioen  
antzerak. Arrigunagan ez zegoen jada harea askerik,  
bakarrik azpiko geruzak ikusten ziren, uharriez eta trin-  
koturiko hareaz osatuak.

Aipatutako organismoen gain, aktinia bakan batzuk eta  
Carcinus maenas espezieko karramarroak hazten ziren.  
Orduko lehen ikerketatik honako urteetan Abran burutu-  
tako ekimenen esker (industriaren berrikuntza, saneamendurako plan  
orokorraren hasiera, superportuko ekimenak eta hondartzetako garbiki-  
ta-kanpainak), hondartza horietako egoerak hobera egin du nabar,em.  
Horren adierazgarri dira haitzak, bai babestuagoak daudenak (Ereagako  
harkaiztia, Algortako portutik iristeko modukoa bera) bai babesgabeak ere  
(Arrigunaga), orain babesean dagoen substratu gogorreko komunitatea  
ikusten baita: kthamalidoak, muskuiluak, poliketo serpulidoak eta krusta-  
zeo zefalopodoen hainbat espezie. Arrigunaga lehengoratu ahal izateko,  
Bakioaren aurreko barran erauzitako harea erabili da.



Udalerrria: Getxo.  
Luzera: 240 m.  
Azalera: Itsasbeheran, 12.590 m2.  
Itsasgoran, 4.950 m2.

Ibaizabalek itsasoarekin bat egiten duen  
lunean dago hondartza txiki hau, Areetan  
bertan. Itsasoko ura nekez helden da hon-  
darta honetara. Beraz, bertako urak ez  
dira berriztatzen eta kalitate kaskarra dute.  
Hori dela eta, debekatuta dago hondartza  
honetan bainatzea. Egoerak onera egiten  
jarraitzen badu –kutsaduraren gutxitzearen  
ondorioz fauna hasia da indarberritzen–



baliteke urte gutxi barru hondartza hau bainurako  
berreskuratu ahal izatea. Hondartza bikaina izango  
da orduan, segurueta seguruena, ez baita ia olatu-  
rik egiten –besteak beste– Txurrukako nasaren  
babesa duen hondartza honetan.  
Bitartean, eguzkia hartzeko erabili ohi da garai bate-  
an Bizkaiko hondartzarik luzeenetakoa izan zen  
hau, goizetik ilunabarrera arte jotzen baitu eguzkiak  
bertan. Hondarra ere egokia du etzanda egoteko  
edo kirolak egiteko: horia eta fin-fina.

Udalerrria: Getxo.  
Luzera: 882 m.  
Azalera: Itsasbeheran, 110.265 m2.  
Itsasgoran, 42.665 m2.

Garai batean, Areetakoaren batera,  
Bizkaiko hondartzarik aristokratiko-  
enetakoa zen hondartza zabal hau.  
Abran kokaturik, bere uren kalitate eska-  
sa zela eta gainbehera jasan zuen hain-  
bat hamarkadaz, eta duela urte gutxi  
arte arriskutsutzat jotzen zen bertan bai-  
natzea uraren kutsaduraren ondorioz.  
Azken hiru urte hauetan onera egin du  
uraren kalitateak, eta baimenduta dago  
bertan bainatzea, nahiz eta uretatik  
irten ondoren dutxa bat hartzea gomen-  
datu oraindik ere.

Oso zabala eta nahiko jendetsua hondartza hau, eta  
bainurako guztiz egokia ez bada ere, asko estimatzen  
dute eguzki eta paseozaletzek. Izan ere, Getxoko Kirol  
Portu berritik Algortako arrantzale auzo zaharreraino  
luzatzen da, eta ia kilometroko ibilaldia egin daiteke,  
hondartzaren gaineko paseabidean zein hondartzan  
bertan. Itsasbeheran Algortako kai txikiraino hel daiteke  
oinez, haitz artean azken zatian, eta marearteko unee-  
tan fauna aberatsa ikusten da haitzen artean egiten  
diren putzuetan. Hondartza oso eguzkitsua da, eta  
arrastiri ederrak ere ikus daitezke bertan.  
Hondarra ere berezia du Ereagak, nahiko fina eta naba-  
rra. Oinetan hauts txuri antzeko bat geratzen da eran-



tsita, toallaz baino hobeto oinak bustita kentzen dena.  
Ez kezkatu, ez baitu zerikusirik kutsadurarekin. Izan  
ere, jatorri organikoa duten karbonato asko ditu hondar  
honek, moluskuen maskorren desegitearen ondorio.  
Hondartza erdi irekia izanik, sagailo edo itsaskia dago-  
enean gogor jotzen dute olatuek ertzean, tirain edo  
erresaka bizia sortuz. Arriskutsua da orduan hondartza,  
aldapatsua izanik berehala hartzen baitu urak sakone-  
ra handia.  
Hiru korrante nagusi ditu Ereagak, bitxiak hirurak, zir-  
kuluerdi formakoak baitira. Hau da, hasiera batean ige-  
rilaria itsaso aldera erakartzen dute, baina gero berriz  
itzularazten dute hondartzara. Gehienetan, ordea, itsa-  
so barea da nagusi Ereagan, eta ez da hondartza arris-  
kutsuegia.



Udalerrria: Getxo.  
Luzera: 628 m.  
Azalera: Itsasbeheran,  
51.425 m2.  
Itsasgoran, 34.780m2.

Gaur egun ezagutzen dugun Arrigunaga hondartza zabala izen bereko hondartza txikiaren handitzearen ondorio da. Neurri batean, beraz, hondartza artifizia da, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurugiro Sailak eragindako lanek ahalbidetu baitzuten hondartza honen sorrera. 90eko hamarkada arte Labe Garaietatik ateratako zepa-bloke handiz beteta zegoen hondartza, eta hondarra behar-rean itsasoak etengabe mugiarazten zituen harri koskorrez beteta zegoen. Gaur egungo hondartza egiteko ezker aldeko Pilotu Haitzaren ondoan dike handi bat egin zuten, eta ondoren beste hiru hondartzaren eskuin aldean, Aixerotako errotaren azpian. Dike horien bidez itsasoaren indarra baretu egin zen, eta hondartza egiteko erabili zen harea —ez oso fina eta ilun samarra— urak ez eramatea lortu zen. Itsasoak itsaslaba-rean jo ondoren hartzen duen indarra ikusita, zalantzan jarri zuen batek baino gehiagok hori baina, oraingoz, eusten dio hondartzak hareari...

Punta Galean kokatutako hondartza hau Getxoko erdigunetik oso gertu dago, eta oso egokia da eguzkia hartzeko, egun guztian jotzen baitio eguzkiak. Uraren kalitateak onera egin du hemen ere. Itsasoa Ereagakoak baino hur-



bilago duenez, errazago berriztatzen da ura eta bainua librea da, baina uretan ez denbora gehiegi ematea eta uretatik irten eta gero dutxa on bat hartzea gomendatzen da. Punta Galeak babesten badu ere, itsasora irekitako hondartza da Arrigunaga, eta olatu bikainak izan ohi ditu. Bainugunerik arriskutsuenak eskuinekoa eta erdikoa dira, igerilariak itsaso barrura erakartzen dituzten bi korronte baitaude gunen horietan. Korronte hauek ez dira Ereagakoak bezain begirunetsuak, eta ez dute igerilaria ertzeratu bueltatzen... Hondartzaren eskuineko alda asko estimatzen dute surfariek, baina bainurako askoz ere egokiago eta lasaiagoa da kai-mutur batek babesten duen ezkerreko aldea, batere korronterik gabekoa. Herriatik hain gertu egonik, hondartza nahiko jendetsua da, eta aparkaleku txiki bat baldin badauka ere udako egun eguzkitsuetan ez da erraza izaten aparkatzeko lekurik aurkitzea. Hobe, beraz, garraio publikoa edo zangoak erabiltzea.



## LA GALEAKO ITSASLABARRAK ETA TUNELBOKA EDO SANEAMIENTOKO KALA



La Galeako lurmuturrera iristeko, izen bereko labarren gainetan zehar joango gara, Algortatik datorren pasealekutik. Lurmuturrak Abra ixten du ekialdean, eta bertan Irrati-itsasargi bat dago. Ia ez dago labarretara heltzerik, ez bada superportuko morrura eta urpeko kontradikera joateko duten pista pribatu batetik. Dena den, behatokitatik ikusten da labarrek berezko duten hidrodinamismo handia.



Itsasargia atzean utzita, labarren gainetan zehar Sopelaraino doan bideko zidor batetik Saneamiento deritzon kalara jaits daiteke. Kolako zorua harea trinkotuaz osatua dago. Kalaren izena Bilboko hustubide zaharrak emana da, berta isurtzen baitziren hiriko ur zikinak. Hustubidea 1903an bukatu zen, Ricardo Uhagón ingeniariaren 1893ko "higieneko proiektuaren" ildotik: euri uretatik bereizi ondoren, eta Elorrietako pompatze-estazioak bultzatuak, Bilboko hondakin-urak itsasora bidaltzen ziren, itsasadarrean ez isurtzearen. Proiektua arazketa biologikorako sistema bat zegoen, Espainiako lehenbizikoa. Gaur egun bertan behera behera utzita dago. Saneamientoko hondartza zementatuz joan joan da XX. mendean zehar, lehenago azaldu den prozesua dela medio, Labe Garaietako eskoria ondakinaren eraginez; gainera, itsasoak higatuta dago, eta azaltzen diren metro bat inguruko ebakian aztertuz, hondartzaren osaketa ikus daiteke; hareak adreilu puskak eta industria-hondarrak ditu bere baitan, eta tarteka, azpiko haitz-geruza ere azaleratzen da.



## GORRONDATXE HONDARTZA



**Udalerria: Getxo.**

**Luzera: 844 m.**

**Azalera: Itsasbeheran, 96.374 m2.**

**Itsasgoran, 51.774 m2.**

Itsasora irekitako hondartza honek ageriko eta erdi ageriko harkaitzak ditu; aurrekoek baino flora eta fauna askoz anitzagoa dauzka, itsasbeherarekin alde bietan azaleratzen diren lautada banatan. Aizkorriko muturrak ezkerrean uzten du Barinatxeko hondartzaren (Salbaje).

Aizkorriko hondartzara Getxoko Santa Mariatik iristen da. Nahiko irekia denez, harea ilunagoa eta larriagoa da, batzuetan zementatua: azal gogorreko lekuetan ikusten diren zuloek antza dute urak darabiltzan harriek arroka naturaletan egindakoekin (pot holes ingelesez, marmitas gaztelaniaz). Haitzezko substratua dago hondartzako bi aldeetan, eta lehengoratzten ari den duna bat ere bai.

Marearteko goialdean alga berdeak dira nagusi, eta ostetxoan alga arre gorrizko sorta bat dago. Putzuetan ugari da *Sargassum muticum* sargazoa, *Ulva* eta *Corallinarekin* batera. Erruz hazten den beste errodofizeo bat *Cladostephus spongius* da. Harean ikusten dira, halaber, marearteko zein behealdeko arroketatik erauzitako algak: *Eulalia viridis*, *Lepidonotus clava*, *Cirrifomia tentaculata* eta beste hainbat

motatako poliketo sarraskijaleek eta mikrofagoek, biak materia organikoaren kontsumitzaileek, kolonia handiak osatzen dituzte beste batzuekin batera (*Perinereis cultrifera*). Belaki txertakorrek ere asko dira, eta balanidoak agertzen dira. Dirudienez, mikroiragazleen kopuruak behera egin du lehengoratu denetik.

Aizkorri izenaz ere bada ezaguna itsaslabar izugarri baten magalean dagoen hondartza hau. Sarbideak ez ditu oso erosoak, itsaslabarraren goiko aldean utzi behar baita ibilgailua, eta oinez jaitsi hondartzara. Hala eta guztiz ere, ederretan ederrenetakoa da, heritik nahiko gertu egon arren askotan basatia dirudiena. Itsasoari aurrez aurre irekia, ez du babesik eta oso haizetsua da. Olatuak ere indar handiz lehertzen dira ertzerantz. Beraz, kontu handiz ibili behar da itsasoa bare-bare ez dagoenean, indar handiko erresaka baitu. Maldatsua ere bada hondartzaren profila: urak sakonera handia hartzen du berehala, alegia. Igerilari trebeak ez diren bainuzaleek, beraz, hobe dute ertzetik ez gehiegi aldentzea. Hondar iluna du, eta hartxintzar zatiak ere baditu Gorrondatxe edo Aizkorri. Hondartzaren erdi aldean harri bihurtutako harea diruditen blokeak ikusten dira. Ez dira, ordea, harea, aspaldi itsasoak leku horretaraino eramandako Labe Garaietako zepa-blokeak baizik.

Hala ere, erdiko hori da bainurako gunerik aproposena. Korronteen eraginez, ezker zein eskuineko muturrak nahiko arriskutsuak dira. Eskuineko aldean igerilaria itsaso barrenera zurrupatu edo egiten duen indar handiko korrontea sortzen da, eta urtero gertatzen da ezustekoren bat hor. Ezkerrekoan, zorionez, jende gutxi ausartzen da sartzen. Alde horretan hondoa harritzkoa denez, oso zaila da korrontek kanpotik nabaritzea, ez baita sumatzen beste hondartza batzuetan korrontek eragiten duten harea mugimendua. Hondartza guztiz eguzkitsu honen ondare nagusia, ordea, dunak dira. Babestuta daude gaur egun jendeak honda ez ditzan, baina golfean aritzeko zulotxoren batzuk ere badaude bertan. Sarbide deserosoak direla eta, ez da hondartza oso jendetsua, eta urpekaritzarako, surferako eta paseorako igerirako baino egokiagoa da. Ura, aldiz, garden eta garbia du beti. Hori dela eta, urtero eman diote 1992az geroztik Bandera Urdina.



## SOPELAKO HONDARTZAK: LA SALVAJE EDO BARINATXE, ARRIETARA ETA ATXABIRIBIL

Sopeako hiru hondartzak mugakide dira. Hauexek dira, mendebaldetik ekialdera goazela: Barinatxe, Arrietara eta Atxabiribil. Jende asko hurbiltzen denez haietara, Getxotik Plentziarako errepidetik erraz hel daiteke edozeinetara: lehenengo ezkerrean dago, eta besteetara iristeko eskuinera jo behar da. Hondartzen arteko arroka lerroak ez dira oso altuak; labarretan eta marearteko lautada arroksuetan argi da haitz sedimentarioen flysh egitura.


Malda leuneko hondartzak dira, eta itsasbeheretan hareatza zabalak agertzen dira, aipatutako arroka lerroek elkarrengandik bereiziak. Haitzen gainean marearteko komunitate sarriak ikusten dira hiru hondartzetako eskuinaldean, Atxabiribil eta Arrietara arteko haitzezko lautadetan eta Atxabiribilko eskuinaldean. Azken hondartzeko atzealdean dagoen ur gezaren isuriak ongarritze modu bixia dakarkio.

Itsasbeheran, laginak bildu diren eremuan arroka geruzak ageri dira, kostarekiko perpendikularrak. Mareen artean han azaltzen diren putzu eta azpil askotan komunitate anitza eta handia ikusten da: likenak, algak eta animaliak daude arroken gainean eta



beraien arteko putzu eta arrakaletan. Era askotako animaliak bil daitezke: lapak, ekinodermatuak (ofiurak, izarrak eta trikuak), nemertinoak, belakiak, litorina espezie desberdinak (oso ugariak dira *Littorina neritoides*ak), hamar espezieetako poliketoak eta bi aktinia espezie. *Actinia equinaren* hiru koloreetakoak kolonia handiak osatuz zabaltzen dira: gorriak, berdeak eta orbandunak. Haitzetan zulogileek egindako zulo asko daude, eta pitzaduretan muskuiluak. Atxabiribilko barrualdean lapa handi samarrak daude, baita *Thais haemastoma* generoko bat edo beste ere.

Ugariak dira putzuak mareen goi-lerroan, itsas ezkurren eremuetan; putzu horietan *Corallina* eta *Codium* ez ezik, izkira asko ere ikusten dira. Beheragoko mareen arteko putzuetan bestelako algak (*Bifurcaria bifurcata*) eta itsas trikuak daude.





## ARRIETARA-ATXABIRIBIL HONDARTZA



**Udalerria:** Sopela  
**Luzera:** 826 m.  
**Azalera:** Itsasbeheran, 134.682 m2.  
**Itsasgoran,** 20.322 m2.

Arrietara-Atxabiribil hondartza da Sopelako hondartza nagusia, luze-luzea eta, itsasbeheran bederen, oso zabala, nahiz eta azaleraren zati izugarria galdu itsasoak gora egiten duenean. Hondartzaren ezaugarrien arabera, koa da diferentzia ikusgarri hau. Izan ere, sakonera txikia du itsasoak kostalde zati honetan, eta ehunka metroko marearteko zabalgunea dago bertan. Desnibela txikia izanik, inolako arazorik gabe igotzen da ura hondartzan barrena, hareatza asko murriztuz. Mesedegarria da hori igerilariantzat, urak ez baititu ustekabeen estaltzen nahiz eta aurrera sartu itsasoan. Hala eta guztiz ere, kontuz ibili behar da hondartza honetan itsaso handia dagoenean, ez baitu inolako babesik. Ur sakonera txikikoa denez, bestalde,



garaiera handia

hartzten dute olatuek. Horrexegatik estimatzen dute asko Sopelako hondartza surf-lari-ek, jakina. Eta surf-lari kopurua ere buruhauste bilakatzen da askotan oinezko hondartzazaleentzat.

Inguruko hondartza gehienak bezalatsu, itsaslabar handi baten azpian dago, eta Barindatxetik oso gertu. Itsasbeheran bat egiten dute askotan hondartzan biek, eta batetik bestera oinez pasatzea ere posible izaten da. Hori bai, itsasgorari erreparatu behar zaio norberarena ez den hondartzan isolatuta ez gelditzeko.

Hondar fin eta urre kolorekoa du, oso atsegina eta ibiltzeko egokia. Duen luzeera eta harearen kalitatea kontuan harturik, paseo luzeak emateko oso hondartza aproposa da.

Jendetsua ere bada, ordea, eta askotan gehiegizko okupazioak zapuztu egiten ditu hondartza eder honen berezko dohainak.



## BARINATXE HONDARTZA



**Udalerria:** Getxo eta Sopela  
**Luzera:** 752 m.  
**Azalera:** Itsasbeheran, 198.009 m2.  
**Itsasgoran,** 61.489 m2.

Hareatza zabala da Getxo eta Sopela artean kokatutako Barinatxe hondartza, askorentzat Basatia izenaz ezagunagoa. Itsasoaren aurreran erabat irekia eta babesik gabea, itsas handiko egunetan bortizki jotzen dute olatuek hondartzaren kontra. Hondoaren ezaugarriak direla eta, altuera handia hartzen dute olatuek, eta horrexegatik estimatzen dute asko



berriz, garbia du, eta bandera urdina da horren adierazle. Itsaslabar izugarri baten oinetan dago kokatuta Barinatxe,

Barinatxe surf-lari-ek, batez ere hondartzaren ezker muturra. Hondarra fin eta iluna du, hauts itxura ere baduena. Izan ere, antzina-ko fundizioetan sortutako altzairu hautsa du nahastuta Barinatxeko hareak: iman bat hurbilduz gero, horietako partikula mordoa erakarriko du.

Gutxi berriztatzen denez, nahiko zikina da Barinatxeko hondarra. Ura,

eta oinez jaitsi behar da, autoa goiko aldeko aparkaleku zabalean utzita. 200 bat maila dituen eskailera atondu zuten horretarako... Indar handiko korranteak eta erre-saka ditu, eta arriskutsua gerta daikete sorosleen aholkuei jaramonik ez egitea. Babes ezaren ondorioz, hondartza oso haizetsu eta eguzkitsua ere bada, besteak beste parapentea egiteko guztiz egokia. Sopelatik oso hurbil dagoenez, hondartza oso jendetsua izan ohi da Barinatxe. Denetarikoa hondartzazaleak hartzen ditu Barinatxek, baina tradizionaliki hondartza nudista izan da zati handi batean. Gero eta ezagunagoa den lastekerka nudista ere egiten dute bertan urtero.





Udalerria: Barrika.  
Luzera: 400 m.  
Azalera: Itsasbeheran, 24.000 m2.  
Itsasgoran, 12.000 m2.

Meñakotzeko mutur-  
rrak bereizten du  
hondartza hau Sopela-  
koetatik; beste aldean  
Barrikakoa dago.  
Bainulari nudistek erabi-  
la, ez da erraza bertara  
iristen, eta maiz han-  
hemenka dabilta arran-  
tzaleak, gehienbat ola-  
garrotara eta itsaskitara  
joanak (buiak, muskui-  
luak, magurioak, karra-  
marroak... baita trikiak  
ere).

Zoruak, harea larriaz gain, legarra, uharriak eta blokeak  
ditu, baita flysheko haitz margokaredunak ere -Sopelan  
bezala-. Mendebaldeko hegalean, basaltzoko labak, urpe-  
ko erupzioengatik kanporatuak, kuxin antzeko multzoak  
eratu ditu.

Hondartzan leku irekiagoak eta babestuagoak daudenez  
(ezkutaleku, zirrikitu eta hutsune asko dago), komunitate  
biologikoa oparoa da, eta espezie nagusiak ere ugari;  
horretan zerikusia izan du Nerbioiren itsasadarrak ere,  
lehenengo eragina moteldurik ongarritu egiten baitu orain  
ingurua.

Meñakotzen itsas ornogabe guztiak ikusi, haietako batzuk  
ordura arte aipatu gabeak Iberiar penintsulan (*Golfingia  
rimicola Gibbs sipunkulid*o kasu), Molusku eta poliketo  
talde ezagunenekin batera, bildu dira han briozooak, for-  
nideoak, enteropneustoak eta beste. Marearteko lautadako  
behealdean triku asko daude, eta espezie bakanetako  
holoturiak ere ikusi dira.

Itsasgoran bakarrik substratu harritsua geratzen da bistan,  
eta hidrodinamismoa handiko lekua denez, mareak ekarri-

## MEÑAKOZ HONDARTZA



tako algek estaltzen dute batzuetan (adibidez, *Codium*  
generoko klorofitoak).

### Meñakoz hondartza

Senaia edo kala ia basatia da Barrikako Meñakoz honda-  
tza, ederra eta eguzkitsua, baita oso harritsua ere. Izan  
ere, harkoskoak dira nagusi hondartza honetan: handiak  
goiko aldean eta txikixeagoak ur ertzera hurbildu ahala.  
Itsasbeheran baino ezin da ikusi Meñakozen hareazko  
hondartza zati bat... Hori dela eta, luzea izan arren ez da  
batere egokia paseorako. Itsaslabarraren azpian kokatua,  
sarbideak ere zailak ditu, eta oinez jaitsi behar da ezinbes-  
tean. Jende askorik erakartzen ez duen hondartza izanik,  
asko estimatzen dute nudistek.

Harkaitz ugari ditu Meñakozek. Itsasora begira gaudela  
eskuin aldean harri-lubeta antzeko bat dago, eta ezker  
aldean marearteko zabalgunek handia. Itsasbeheran erdian  
ere sortzen da hondartza bitan zatitzen duen harkaitz mul-  
tzoa.

Harkaitz horietan guztietan itsas fauna aberatsa bizi da, eta  
urpekari asko hurbiltzen dira eko-  
sistema ikusgarri horretaz goza-  
tzera edota arrantza egitera.  
Garai batean, gaur egun erdi  
lehortuta dagoen errekaetan  
ere aritzen omen ziren arrantza-  
leak, eta gogoan dituzte zaharre-  
nek bertan hartutako aingira eta  
olagarroak.

Itsasora irekitako hondartza  
honek ez duenez inolako babe-  
sik, olatu bila dabilta surflariak  
ere erakartzen ditu. Bainurako,  
ordea, ez da batere egokia.  
Olatu eta korronteez gain, malda  
handia du, eta berehala hartzen  
du urak sakonera handia.  
Gogoan izan behar da, gainera,  
Meñakozen ez dagoela sorosle-  
rik. Hondartza bitxia da, baina ia  
zerbitzurik gabea, arriskutsua eta  
ez oso erosoa.



Udalerria: Barrika.  
Luzera: 600 m.  
Azalera: Itsasbeheran, 36.000 m2.  
Itsasgoran, 18.000 m2.

Barrikakoa itsasora irekita dago, eta  
Fisher-Piettek dioenez, 1949an  
hareazkoa bazen ere, 1955eko bisital-  
dian galdua zuen harea. Dena den, hain  
irekia izanik ere, egonkorragoa dirudi  
gaur duen itxurak: orain lautada bat da,  
itsasgoran ia erabat urperatua; harea  
larriagoa da kostaldeko marratik jaitsi  
ahala, eta itsasbeherak agerian uzten  
duen tartean geruza bertikalak daude,  
kostarekiko perpendicularak. Horko  
geruzetako kanaletan eta azpiletan  
metaturiko legarrak eta uharriak lodiago-  
ak dira itsasertzaren azpialdera hurbil-  
tzen garen heinean. Leku batzue-  
tan harea metatu egiten da, eta  
inguruko labarrek interes biologi-  
ko handia dute, bere sedimentu-  
geruzak tolesturik azaltzen baitira.  
Getxotik Plentziarako errepidea-  
ren adar batetik jota, aparkaleku  
zabal batera iritsiko gara. Hortik  
kalaraino erraz iristen da eskaile-  
retan behera, baina lekua nahiko  
aldapatsua denez, noiz edo noiz  
eskailerako tarteren bat moztuta  
dago.

Faunari dagokionez, Barrikakoa  
aberatsa da, eta berezitasunak  
ditu Sopela eta Mñakotzekoaren aldean, beharbada leku  
babesgabeagoa delako: uharri multzoak barreiaturik ikus-  
ten dira, segur aski olatuek eta korrontek mugituak. Ez  
dago horrenbeste zulogile eta "harrijale". Arrakaletan eta  
toki babestuetan ere harea fin eta lokatz gutxiago sartzen  
da, beraz ingurua ez da oso egokia zenbait poliketo  
(*Cirratulus cirratus*) eta antzerakoak bizi daitezen. Ugariak  
dira, aldiz, poliketo ibiltarietako zenbait nereido eta  
Lepidonotus generokoak, hala nola sarraskijaleak eta  
harrapariak. Ikusten dira, halaber, muskuiluak, aktiniak  
anemonak (gutxiago, ordea), nemertinoak eta ab. Ez zen  
ekinodermaturik agertu.



## BARRIKA HONDARTZA



### Barrika hondartza

Meñakozen antzera, Barrikako  
hondartza ere itsaslabarren azpian  
dago, eta autoa goiko aldean utzi-  
ta oinez jaitsi behar da bertara.  
Kasu honetan, bidexka nahiko ero-  
soa dago hondartzaraino heltzeko.  
Harritsua ere bada Barrikako hon-  
dartz, baina dauka hondarra  
horixka eta nahiko fina da, etzan  
egoteko egokia. Itsasoaren aurre-  
an inolako babesik ez duenez,  
hondartza haizetsua da, eta olatu

handiak izan ohi ditu, baita tirain bizia ere.  
Soroslerik baduen arren, kontuz hartu behar da bainua  
Barrikako hondartza honetan. Meñakozen kasuan bezala,  
berehala hartzen du urak sakonera handia, eta tirainak  
norba itas barrenera erakartzen badu nekez ukituko du  
hondoa oinez, nahiz eta ertzetik hurbil dagoela irudit-  
u. Igerilari oso-oso trebeak ez direnek, beraz, hobe dute ure-  
tan poliki-poliki sartzea eta hondoa ukitzen dutela segur-  
tatzea. Nolanahi ere, olatu handiak daudenean berehala  
eragozten dute bainua sorosleek. Oso garrantzitsua da  
hondartza honetan sorosleek jartzen dituzten banderei  
erreparatzea, ez baitute megafonia zerbitzurik.

Surferako eta windsurferako egokia  
—taula hartu eta hondartzara jaitsi beharra  
da, ordea, kirola bezain neketsua— urpe-  
karitzarako ere aproposa da Barrikako  
hondartza, heritik nahiko urrun dagoenez  
hondo garbi-garbia du eta, baita itsas  
fauna eta landaredi aberatsa ere.  
Hondartza-egunaren helburua eguzkia  
hartzea, paseatzea eta bainu lasai bat  
hartzea bada, Barrikako hondartza ez da  
erosoegia. Inguru basati antzekoak gogo-  
ko dituztenek, ordea, estimatuko dute  
itsaslabar azpiko hondartza harritsu hau.  
Nolanahi ere, inguruan nahiko ondo hor-  
nitutako atsedengunea du, mahai, eserle-  
ku eta iturritz osatua, besteak beste.



Udalerria: Barrika.  
Luzera: 80 m.

La Canterakoa, Plentzia-Gorliz badiako lezkerraldean dago. Herritik bertatik iristen da, egoitzaren ondotik, baina bidea ez da oso eroso. Hondartza nudista da, eta egoera biologikoa Barrikakoaren antzekoa da: horren irekia ez den arren, legar ale eta uharr asko ageri dira, hondartzan sakabanatuak.

#### La Cantera edo Muriola hondartza

Benetan basatia da hondartza hau, giza-kiak ukitu gabea, batere zerbitzurik ez duena, aurkitzen ere zaila eta sarbide

## LA CANTERA HONDARTZA



oso gogorrekoa. Harrobiko hondartza edo La Cantera ere esaten diote. Hondar fina du, eta hainbat urtez hondartza nudista izan da gehienbat. Hondartza irekietan gertatu ohi den bezala, berehala handitzen dira olatuak eta tiraina, eta oso arriskutsua izan daiteke bainua. Kalitate handiko ur gardenak, Gorliz eta bere badiaren ikuspegi zoragarria eta lasaitasun izugarria dira hondartza honen ezaugarri nagusiak. Urpekari dezente ere hurbiltzen da bertara.

## BUTROE IBAIAREN ESTUARIOKO KANPOALDEA; PLENTZIA ETA GORLIZEK HONDARTZAK

Estuario-inguru hau ondo kontserbatuta dago; badia batera zabaltzen da, Barrikaondo eta Astondo muturren artean - mendebaldean bata eta ekialdean bestea-. Itsasadarra modu asimetrikoan zabaltzen zen, mendebaldean Barrikondo labarren eta Busterriko mutur txiki eta arrokatuaren artean; Busterrin "erietxe txikia" zegoen, lehenago gotorleku bat egon zen leku berean, hain justu. Eskuinaldean Plentziako muinoa ukitzen zuen; kostaldean zeuden hareatza laburretako batean untziola bat eraiki zen, eta bestean, ur geza esku- ra baitzuen, portu txikia eraiki zen. Egindako lurperatzeei esker, lehorrak lekua kendu zion itsasoari, baina eraldaketa handiena estuarioaren eta itsasoa- ren arteko kaia eraikitzearen ondorioa izan zen. Harrezkero, kaiek harearen dinamika asaldatu dute, orain eskuinera metatzen baita, Plentzia aldean. Izan ere, Plentziako hondartzak 170 m- raino du zabaleria du, eta 350 m luzera, baina kos- tak badiarantz egiteko duen arkuaren erdian, aldiz, harea urriagoa da: Gorlizko hondartzak, errepidea doan kai muturrak mugaturik, 800 m luzera eta 45 m zabale- ra du. Erietxea eta errepidea eraiki aurretik, hondartzaren atzealdean duna sail bat zegoen (geroago aztertuko da). Beste ibarrean, Barrikatik Plentzia ondora doan errepidea eraikitze-ko lurperatze-lanen ondorioz, itsasadarren ubidea



Txipiosko paduratik bereizita geratu zen, eta bien arteko ur- lotura murriztuta. Orain, mareak gora egiten duenean urpe- ratzen da padura. Gainera, bertako zati bat ere lurperatu zuten kirol-instalazioak eta bestelakoak eraikitze-ko. Hala ere, beste tarte handi bat egoera onean dago.



Gorlizen kasuan, batez ere Astondoko duna- mordia geratu da ukittuta. Lehenik itsasaldeko ospitalea (1919an bukatua) hareatzean eraiki ondoren, herritik bertaraino egindako errepide- ak eten egin zuen harearen berezko ibilia. Hortaz, haizeak ezin berriturik, eta gainera ber- tako harea kantitate handiak kendurik, agerian geratu da haizeak ordura arte metatutako harea zementatua ("duna fosilak").

Estuario honek behatoki asko ditu ingurua aztertze-ko. Hondartzetara sarritan heltzen dira algak eta planktoneko animalia aldrak, marmo- kak eta sifoidunak, kasu. Padura itsasadarrean eta Txipiosen artean da, eta Gorlizeko hondar- tzan, Astondon, substratu arrokatuko komuni- tateak hazten dira.


Pilotaleku ondoan, aurrekoan zegoen itsasada- rreko bolu zaharra desagertu da, baina errotaria ere ez dago orain. Oraindik, leku horretan, lokazti hareatsuetako komuni- tateak bizi dira: Nereis diversicolor-Scrobicularia eta berbere- txoak (*Cerastoderma edule*). Horietatik kanporago, itsasbehe- rarekin, hareaz inguratutako haitzak azaleratzen dira, gero eta lokatz gutxiagorekin; haietan ostra asko (*Ostrea edulis* eta *Crassostrea angulata*) eta izkirak (*Palaemon serratus*) ikusten dira marearteko putzuetan. Lapa bat edo beste ere ikusten da. Ez dago aktiniarik, anemonarik edo ekinodermaturik. *Venerupis decussata* eta *Anomia ephyppium* motetako kuku bikoak ikus daitezke. Bitarteko aldean, *Mercierella enigmatica*



poliketo serpulidoen tutu multzoak azaltzen dira, eta *Pachygrapsus marmoratus* karramarroa ere oso ohikoak dira. Hondartzaren beste aldean, haitz inguruko ale larriagoko harea dago lokatzaren ordean, Lapak, karramarroak eta akti- niaren bat daude han, baina Mercierellarik ez, itsasadarrekoa izanik ez omen baitu itsas ura berezko ingurua, moldatzeko gai den arren. Areago, zizare mota hau ezin da gazitasun han- diko uretan ugaltu.

Astondoko aldean, labarretatik jausitako haitz handiak eta azaleratutako arroka-geruzak osatzen dute. Laginak bil dai- tezke harkaiztia eta portuko diketik haratago agerian gera- tzen den lautadan. Itsasbeheran agertzen den komunitatea

anitza eta oparoa da, Muñakotzen antzekoa, eta ikusten diren espezie-ak adierazten dute Plentziako itsasadarren eragina, ondoan dauka eta. Adibidez, bertako ostrekin batera lapak daude. Bestee espezie batzuk ere bizi dira hor (zulogile- ak, poliketo lepidonotidoak eta nereidoak). Era berean, badia leku egokia da planktona bil- tzeko; bertan, Bilboko Abran bezala, itsasaldeko fitoplankton eta zooplankton multzoak kanpoalde- an baino sarriagoak dira, Butroe ibaiaren ongari- tze-efektua dela eta. Fitoplanktonaren urtarako zikloa badian eta kostaldean oso antzera da: uda- berrian eta udazkenean diatomeoak nagusi dira, eta neguan plankton kantitate txikiena biltzen da. Udan ere, elikagaiak nahikoak badira, diatomeoak erruz agertzen dira badian, baina orain fitoplank- tona ez da kostaldekoa bezalakoa, oligotrofia- sasoia denez, kostaldean flagelatuak baitira gehienak.





**Udalerria:** Lemoiz.  
**Luzera:** 100 m.  
**Azalera:** Itsasbeheran,  
800 m2.  
**Itsasgoran,** 30 m2.

P lentiako itsasada-  
rraren ekialdeko  
puntatik harantzago,  
Billano lurmuturra igaro-  
ta, Bizkaiko kosta ekial-  
derantz luzatzen da, eta  
Matxitxako lurmuturra  
agertzen zaigu, atera  
iparrerantz gehien ate-  
ratzen dena, hain  
zuzen. Tarte guztian  
kosta altua da, eta labarrak nagusi dira; hondartzak gutxi  
dira, kalak ere urri eta arroksuak, eta denak daude koka-  
turik ibai-erreketa ur geziak labarretan eragindako sartu-  
neetan eta kosketan. Ur emari urria eta batzuetan etenka-  
koa duten arren, ibai horiek garrantzi itzela izan dute ingu-  
ruko fisiografian eta giza asentamenduetan. Ibilbide horre-  
tan zehar, besteak beste Armintzako kala dago; beste bat,  
Basordaskoa, erabat aldatuta utzi zuten Lemoizko zentral  
nuklearraren obrak zirela medio, nahiz eta 1981ean lanak  
bertan behera geratu ziren. Dena den, ondoko kosta tarte-  
an, Urbietako urtegitik hurbil, urpeko arrantza egiten dute  
hainbat sailak.

Armintza herritik erraz heltzen da Armintxapeko kalara:  
hondartza osatzen duten harritzarrak eta haitzezko lauta-  
dak tartekatzen dira, eta azalera handia betetzen dute  
itsasbeheran. Kalaren erditik itsasoratzen den erreka ur  
gezan klorofitoak asko dago, gaiztasun gorabehera han-  
diak jasan baititzakete (*Blidingia*, *Enteromorpha* eta *Ulva*).  
Haitzetako zozo-bazterretan marearteko putzuetan ohiko  
siren komunitateak agertzen dira. Klorofitoekin batera,  
belarjale asko dute: lapak, kitonak, magurioak eta trikuak,  
besteak beste. Alga gehienak koralezkoak dira, eta zenbait  
errodofizeo eta feofizeo ere ikusten dira.

**Udalerria:** Bakio.  
**Luzera:** 982 m.  
**Azalera:** Itsasbeheran, 130.750 m2.  
**Itsasgoran,** 34.800 m2.

B akioko hondartza izen berekosenaian  
zabaltzen da, labarrek inguratutik.  
Irekia eta olatu bizikoa, ezker aldean  
Estepona erreka itsasoratzen da, itsasa-  
dar txiki baten tankera hartuz. Beste erre-  
kasto batzuek ere zeharkatzen dute hon-  
dartz leku ezberdinetan.  
Bakio aldea dagoen sakonunea (Bakio  
Basioga) Triasikoko marga gorriakazko  
diapiroa desagertzean sortu zen.  
Hasieran substratu dentsoago eta gogo-  
rrago baten azpian zeutzan margak zirriki-  
tuetatik azaleratu ziren geroago, eta oso



## ARMINTZA HONDARTZA

### Armintza hondartza

Armintzako portuan bertan dago Bizkaiko hondartzarik txi-  
kientako bat, itsasora begira jarritz gero hondartzaren  
ezker aldean. Egia esateko, hondar gutxi du hondartza  
honek, hareagunea txikia izateaz gain, itsasoak eraman  
ohi du eta bertan pilatzen den hondar apurra. Ume eta gaz-  
teak animatzen dira hondartza honetan zein portuan ber-  
tan bainu freskagarriak hartzea, baina heldu gehienek  
eguzkia hartzeko baino ez dituzte erabiltzen bata zein bes-  
tea. Urpekariak ere asko hurbiltzen dira Armintzara, ertze-  
tik gehiegi urrundu gabe, erraza baita klase askotako arrai-  
nak ikustea. Itsasoa bare baldin badago, ez dago urpekari  
trebea izan beharrik fauna aberats horrekin topo egiteko.  
Gaur egun ere ugariak dira bertan karraspioak, korrokoak  
edo muxarrak, baita itsas trikuak ere. Garai batean arazo-  
rik gabe ikus eta har zitezkeen olagarroak, aldiz, ia desa-  
gertuta daude. Zerbitzu eta ekipamendu gutxi ditu hondar-  
tza honek. Ez du soroslerik, eta ekipamendu guztia dutxa  
bakar bat eta zakarrontziren batzuk dira.  
Portuaren atzeko aldean ere bada, senaia harritsu batean,  
hondar zatitxo bat duen beste hondartza txiki bat.  
Soroslerik gabekoa da hau ere, dutxa bakarra du eta jende  
gutxi bertaratzen da, eguzkia hartzeko edo igeri egiteko  
asmoz.



## BAKIO HONDARTZA

higagarriak izanik, haien  
lekuan gaurko sakonunea  
eratu zen, haitz gogorrago-  
ez inguratuta (batez ere,  
kare-harriak). Hondartzako  
eskuinaldean dauden laba-  
rretan diapiroaren marga  
gorriak ikusten dira ("*haitz  
Gorriak*").

Bakioko hondartzan mare-  
arteko lautada txikiak  
daude, ekaitzetatik babes-  
gabeak, eta haietako geru-  
ze artean harriak ageri dira.  
Lautadetako komunitateak  
oso antzekoak dira: trikuak,  
oso ugari, euren berek  
egindako haitzuloetan  
ezkutatzen dira, eta ane-  
monak eta aktiniak ere  
arrakaletan sartzen dira.  
Leku babesgabeenetan lapak eta  
muskuluren bat daude. Ur azpiletan eta zirrikietan  
*Marthasterias glacialis* itsas izarra eta holoturiak ikusten dira.  
Marearteko komunitatean honako indibiduoak ditugu, besteak  
beste: likenak, lapak, aktiniak eta muskuiluak, eta putzuetan  
Corallina, anemonak, gasteropodoak, izkirak eta trikuak.  
Beharagoko putzuetan *Codium*, *Ulva*, *Corallina*, koralina txer-  
takorak eta Gelidiumez hain, *Cystoseria tamariscifolia* eta  
*Sargassum muticum* bizi dira.

Batzuetan, hareatzako putzuetan platelmintoak eta sinbionte-  
ak daude (orban berdeetan). Kopepodo harpaitikoideak ere  
badaude. Maiz, hareetan *Cystoseira bacarra*, *Plocamium*,  
*Halydris* eta *Zostera* lehorreratzen dira multzoka.  
Ekialderantz Bizkaiko kostaldeko egiturarik deigarrienetako  
bat dago: Kostaren ondotoxoan San Juan Gaztelugatxekoa eta  
Aketze harkaitzek osatzen duten biotopoa. Gaztelugatxera,  
marearteko lautadaren gaineko pasabide batetik heltzen da.  
Biak dira karezko arrezife-haitzak, eta bakartutik daude ingu-  
ruko besteak itsasoak higaturik desagertu zirelako.  
Ondoren Matxitxako lurmuturra dago, kosaldeko lekuri ipa-  
renerakoa. Itsasargiraino doan errepidetik Arribolaseko kala-  
ra joan daiteke pista batetik. Kala harritsua da eta itsasgoran



ia guztiz desagertzen den arren urpekari asko joaten dira  
hara.

### Bakio hondartza

Bizkaiko hondartzarik handienetakoa eta jendetsuenetakoa  
da Bakio, eta, txakolinaren baimenaz, Uribeo herri honen  
ondaririk preziatuena, udatiar ugari erakarri ohi ditu-eta harea  
fineko hondartza honek herrira. Ia kilometro batekoa du  
Bakioko hondartzak batez besteko luzera. Askok aldatzen da  
azalera mareen arabera, lau bider zabalagoa baita hondartza  
itsasbeheran itsasgoran baino. Hondartzaren maldaren ondo-  
rio da Bizkaiko beste hainbat hondartzatan ere aurki daiteke-  
en ezaugarri hau. Malda txikia du, izan ere, Bakioko hondar-  
tzak, eta maila desberdintasun handirik gabe barneratzen da  
hondarra itsasoan. Itsasoak, beraz, oztoporik gabe egin  
dezake gora zein behera...

Garrantzitsua da hori bainu-hartzailearentzat. Hain zuzen ere,  
itsasoan poliki-poliki murgil daiteke, ezustekorik gabe, uraren  
sakonera pixkanaka-pixkanaka handitzen baita, ez supituki.  
Olatu eta tirain edo erresaka handiko egunetan, halaber,  
beste hondartza batzuetan baino txikiagoa da arriskua, tarte  
luzean ukitzen baita hondoa. Egun horietan, beraz, sorosleen  
aholkuei jaramon egiteaz gain hobe  
da ertetik ez gehiegi urruntzea.  
Hondartza lasaia badirudi ere, itsaso-  
ari aurrez aurre ematen dio aurpegia  
Bakiokoak, babes handirik gabe, eta  
itsas handiko egunetan olatu izuga-  
rriak izan ohi ditu. Horrexegatik esti-  
matzen dute hondartza hau surfzale-  
ek. Herria gain-gainean eta ezkerre-  
ko aldean Zubiaur ibaiaren bokalea  
eduki arren, oso kalitate oneko ura du  
hondartza honek, hain irekia izanik  
asko berriztatzen baita. Itsaslabar  
txiki baten ondoan amaitzen den  
eskuineko aldea hondartzaren erdiko  
aldea baino harritsuagoa bada ere,  
oro har ale oso fineko harea du  
Bakioko hondartzak, urre kolorekoa.  
Jai egunetan jendetsuegia ere izan  
daitekeen arren, hondartza oso eroso  
eta erakargarria da.





**Udalerrria:** Bermeo.  
**Luzera:** 75 m.  
**Azalera:** Itsasbeheran, 4.500 m<sup>2</sup>.  
Itsasgoran, 1.875 m<sup>2</sup>.

Bermeora iristerakoan Aritxatxu kala edo hondartza txikia dugu; herriko goialdetik iristen da bertara, hileritik, nekez iritsi ere. Oso babesgabea eta labar azpian kokaturik, berez, marearteko lautadaxo bat da, harea apur batez eta harriez osatua. Ur bizietako eta -itxura batean- garbietako behatokia da, ingurune mota horretako komunitate guztiak ikusten baitira.

#### Aritxatxu hondartza

Bizkaiko hareazko hondartza natural txikiena da Bermeoko Aritxatxu, hondartza bezala hornituta dauden artean bederen. Izan ere, txikia izan arren, zerbitzu eta ekipamendu egokiak ditu hondartza honek. Senaia arroksatu batean sortutako hondartza da. Harritzko bi pareta handi ditu alde bietan, eta horma horien artean joan da itsasoa harea fin-fina uzten. Horregatik, itsaslabarren azpian dauden hondartza gehienak ez bezala, hareatza oso eroso du, eta hondartza poliki-poliki doa itsasoan sartzen. Itsasbeheran, ordea, agertzen dira harkaitzen batzuk atzera egin duten urek agerian utzi duten hondartza zatian. Nahiz eta bi pareta horiek asko babestu hondartza, olatu handiak egiten dira itsaski egunetan. Hondarra ez ezik, ura du zoragarria Aritxatxuk, garbia eta gardenena. Ertzetik gehiagi urrundu gabe, hondartzaren ezker aldean gehienbat, arrain eta itsaski ugari ikus daitezke. Herrigunetik nahiko urrun dagoenez, arrain asko biltzen da inguru hauetan.

Egun eguzkitsuetan, itsasoa bare dagoenean, uretako betaurreko soil batzuekin hondo zoragarria ikus daiteke, alga, itsas triku eta izar eta belakiz estalia. Sakonera txi-



kiko uretan kabuxa, dontzeila eta karraspio txiki ugari ikus daitezke, hor biltzen baitira jateko bila. Udan txokoak ere berratatzen dira, besteak beste, sakonera txikiko uretan errutera –hau da, arrautzak jartzera– eta izkira eta karramarro txikiak harapatzen. Itsasoa nahasi dagoenean, arroka artera etorri ohi dira babes bila korroi, boga eta muxarra talde zabalak. Nahiz eta urpekaritza ekiporik ez izan, beraz, itsas fauna arazo handirik gabe goza daiteke hondartza honetan. Herriatik aparte egon arren, autoz bertara daiteke, aparkaleku txiki bat badu eta ibilgailuak uzteko. Hori bai, hain txikia eta ederra izanik berehala betetzen da jendez Aritxatxu.



## OKA IBAIAREN ESTUARIOA: URDAIBAI

Oka ibaiaren estuarioa Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ardatza da. Gernikatik itsasoraino doa, eta hara iristean Mundaka-Bermeoko kostaldea du mendebaldean eta Laidako hareazko barra ekialdean. Habitata estuarioko ohikoak dira, nahiko egoera naturalean kontserbatuak: padurak, marearteko lautadak -hareazkoak zein lokatzezkoak-, hondartzak, dunak eta kare-harritzko labarrak. Estuarioko bokalean Izaro uhartetxo dago, eta erreseerbako kanpoaldeko punta banatan Matxixako eta Ogoño lurmuturrak. Kanpoaldean ere Lagako hondartza dago, Ogoñoren magalean. Bakion bezala, Urdaibain ere sistema diapiiriko batek azaleko arroka harrotu eta gainezka egin zion, dentsitate gutxiagoko materiala agerraraziz (Triasikoko buztinkiak). Geroago, material horretako parte bat desagertuko zen modu desberdinetan higaturik. Azalaretzean, lehenagoko materialak (duela 150-200 milioi urte bitartekoak) bultzatu zituen azalerantz, eta horregatik, Bizkaian, Urdaibain baino ez dago agerian Jurasikoa itsasadarren alde bietan. Esan bezala, Oka itsasadarren erretena da estuarioko ardatza. Horri gehitzen zaizkio beste ibai batzuen emariak eta ur gazietan gertatzen diren ur gezaren azaleratzeak. Ubide hau nahiko arin betetzen ari da lurrez eta hareaz arrotik datozkion lehorreko ekarpenengatik eta, kanpoaldean, itsasoko korronteak, olatuek eta mareek ekartzen dutenagatik. Padura dagoen aldea hidrodinamismo txikienekoa denez, sedimentu xehatua metatzen da, eta horregatik fanerogamo-



ek erroak egin ditzakete hor. Landareen zati bat beti urpean dagoen arren, sustraiek ur gazia jasaten dute. Padura itsasadarreko bi ibarretan zehar zabaltzen da, bereziki Gernika ondoan eta ur bareetan, eta zeharkatzen duten ubideetan barna mareak gora eta behera egiten du egunean bitan. Aspaldian padura aldea hustua eta lehortua izan zen larre bihurtzeko. Padurara eta haren ertzetan dagoen harea-lokatzeke lautadara bi ibarretako leku ezberdinetatik iritsi daiteke mareen artean: ezkerrekoan, Busturia eta Axpetik, eta eskui-nekoan Arteaga eta Kanalatik. Itsasbeherak agerian uzten dituen sedimentuetan *Ulva* eta *Chaetomorpha* generoetako klorofitoak ikusten dira, erruz hazten baitira edozein substratu motatan. Ugari den beste landare bat *Fucus ceranoides* da, sedimentuko harri loken gainean hazia.

Alga hori ohikoa da estuarioetan, erraz moldatzen baita ur gazietara, eta babesgarri da molusku gasteropodo eta krustazeo txiki askorentzat. Harriez jositako hainbat bigun horretan hainbat espezie bizi dira: krustazeo dekapodoak, tutu gogor zein biguneko poliketo tutudunak, kisku bikoak eta gasteropodoak. Erdialdeko eta kanpoaldeko sedimentua nahasia da, eta itsasora joz gero harea gehiago du. Hondartzen artetik Laida ezaguna da estuarioko hareazko barragatik eta marearteko hareatza zabalak daudelako. Kanporago goazela, sedimentua hareatsuagoa da, eta bai fauna bai landareak lokatzakoan baino urriagoak dira. Landareen artean gehienak diatomeoak eta klorofitoak dira, eta faunari dagoionez, nagusi dira poliketok, molusku gasteropodoak eta kisku bidunak, krustazeoak eta, itsasertzaren behealderantz nahiko urrundurik, bihotz itxurako itsas triku bat edo beste. Itsasotik barrurantz sartzen garel,





Urdaibai, Gernika edo Mundakako estuarioko ezker aldean Mundaka, Laidatxu, Toña, San Antonio eta San Kristobal hondartza eta kaletatik pasatzen gara, eta itsasorako bueltan Kanalape, Kanala eta Laidakoa ditugu eskuinaldean. Mundakako portua igarota, Santa Katalinako puntaren ondoan hariztietan, Ondartzape aldean, fauba ikaragarri oparoa da zirrikitu, pitzatu eta arrakaletan, haitzen arteko lokaztietan...

Inguru horretako ohiko espezieez gain, han aurreko leketan ikusten ez ziren espezieak aurkitu genituen, esate baterako Lima hyans kuskua: harrien azpian egiten dituen "habietan" bizi da, eta arin-arin mugitzen denez gorri-laranja kolore bizietako brankiak erakusten ditu. Beste batzuk honakoak dira: *Thalassema thalassema*, zizareekiuridoen talde urrikoa; *Leptosynapta inhaerens* holoturia; *Sycon* generoko bi belaki espezieak; poliketo espezie batzuk -terebelidoak eta beste- eta *Haliothis* itsas belariaak. Erruz ikusten diren beste batzuk eunizidoak eta ekinodermatuak dira (trikuak eta ofiurak).

#### Toña eta San Antonio hondartzak

Estuarioan bertan, Txatxarramendi penintsularen inguruetan, Toña eta San Antonioko hondartzak ditugu. Hareatza horietako bazterretan dauden lokaztietako arroka batzuek penintsularen istmoa osatzen dute, eta beste batzuk, berriz, loka daude.

Txatxarramendi aldeko fauna berezko espezieak diren *Ostrea edulis* eta *Crassostrea angulata* ostrak muskuiluekin nahasturik agertzen dira, masa trinkoetan. Haietako ostra batzuk hilik



daude, eta beraien eta haitzen artean bizi den komunitate anitz-anitzeko espezie batzuk hemen beste inon ez dira aurkitu: *Cereus pedunculatus* antozooa (berau askatzeko ia apurtu behar da arroka); *Actinother* aktinia; zenbait poliketo nereido mota, oso ugariak ostren artean; trebelidoak alde lohitsuenean (*Amphitrit* *gracialis*); harean *Cyclonasa* (*Cyclotona*) nerite gasteropodoa, berau ere erruz zabalduta. Txatxarramendiko arroketan bildutako magurioak *Littorina neritoides*, *Littorina saxatilis*, *Littorina obtusata* (ez da oso ohikoa) eta *Littorea* espezieetakoak dira; aurkitutako kasku bikoak *Venerupis decussata*, *Venerupis pullastra*, *Cerastoderma edule* (berberetxoak) espezieetakoak dira, besteak beste. San Antonioren pareko hareatzetan Mundakako itsasadarrean bizi diren kasku biko mota guztien maskorrak daude. Bizirik, ordea, *Scrobicularia plana* txakur-muxila asko daude; espezie hau hazten den itsasadarrek materia organiko asko dute substratuan eta ez daude oso kutsaturik.

**Udalerrria: Sukarrieta.**

**Luzera: 190 m.**

**Azalera: Itsasbeheran, 19.250 m2.**

**Itsasgoran, 7.700 m2.**

Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren estuarioaren eskuin aldean dagoen Sukarrietako San Antonio hondartza harea fineko zabalgunea da, lasaia eta segurua bisitariarentzat, ia olaturik gabekoa. Korronteekin, ordea, arretaz ibili behar da, nahiko indartsuak baitira marea aldaketa tartetan, estuarioetan dauden hondartza askotan gertatu ohi den bezala. Adi eta kontuz, beraz. Mareak gora egiten duenean eta itsasgora erabatekoa den arte, ertzetik urrun dagoen igerilaria estuario barrenean eraman dezakete korronteek. Alderantzizkoetan –hau da, mareak behera egiten duen unean– itsaso aldera bultzatuko du igerilaria korrontearen indarrak. Zabala da hondartza hau, 133 metrokoa baitu batez bes-

teko zabalera. Azalera, ordea, asko aldatzen da marearen arabera, batez ere marea biziak suertatzen direnean. Itsasbeheran ia 20.000 m2ko azalera hartzen du San



## SAN ANTONIO HONDARTZA

Antonioko hondartzak, eta maiz posible izan ohi da ibaiaren beste alderaino oinez heltzea. Itsasgoran, ordea, asko urritzen da bistan gelditzen den hareatza. Malda txikiko hondartza izanik, poliki-poliki barneratzen da hondoa uretan. Hondo horrek, gainera, ez du zulo eta putzu askorik.

Ez da hondartza haizetsuegia, baina eguerdi aldera, sarritan, itsas brisa leuna altxatzen da, windsurfa arrisku handirik gabe egitea ahalbidetzen duena. Eguzkitsua da, ordea, San Antonio, oso eguzkitsua, goizetik arratsera arte erabat eguzkitan dagoena. Hondartzatik oso hurbil uhartetxo ederra dago, eta ederra-goak dira oraindik irla horretatik ikus daitez-



keen bistak. Itsasbeheran oinez joan daiteke irla-txoraino, eta jende asko baliatzen da aukera bitxi horretaz. Adi, ordea. Itsasoak ziztu batean egiten du gora inguru honetan, eta irlaren bisitari bat baino gehiago geratu izan da bertan, marea berriz aldatu artean hondartzara ezin itzulita. Udako egun eguzkitsuetan jende asko hurbiltzen da San Antonio hondartzara. Ez da, beraz, hondartza lasaiegia. Aldiz, ondo ekipatuta dago, eta inguruan ere badu egunpasarako gunee ongi hornitua.

**Udalerrria: Sukarrieta.**

**Luzera: 120 m.**


**Azalera: Itsasbeheran, 10.200 m2.**

**Itsasgoran, 3.000 m2.**

Urdaibaiko paduran, Oka ibaiaren bokaleko ezkerreko ertzean, hondartza txiki bat sortzen da, Txatxarramendi uhartearen parean. Harea fineko hondartza da, eta batez besteko zabalera hamabost bat metrokoa baino ez du, nahiz eta itsasbeheran hondartza handitxo bilakatu. Sukarrietan bertan dago hondartza hau, herrigunetik oso hurbil. Ezkerreko aldeak tren geltokiko paretarekin egiten du muga,



## TOÑA HONDARTZA



eta eskuinekoan hondartzari eutsi ahal izateko eginiko hormarekin.

Goiko aldean, kai txiki bateraino heltzen den pasealekua dauka. Askok, gazteek gehienbat, bainatzeko erabili ohi dute moila txiki hori.

Toñako hondartza maldatsua da, eta altuera desberdintasun handia du goiko eta beheko aldean artean. Hori dela eta, nahiz eta hondoan zulo eta putzurik ez izan, uretan sartu ahala berehala hartzen du sakonera handia. Uretara sartzerakoan, beraz, hobe dute kontuz ibiltzea igerilari trebeak ez direnak.

Mareak behera egiten duenean, harri ugari agertzen dira



hondartzaren beheko aldean, eta nahiko erraza da horiekin min hartzea. Oka ibaia-  
ren bokale zabalaren alde bietan Toñako  
honen antzeko hondartza ugari sortzen  
dira, eta guztiek dituzte bereizgarri ohar-  
garriak. Estuarioko hondartzak izanik,  
arreta handiz ibili behar da marea aldake-  
ta uneetan, gorako eta beheako korronte  
bortitzak sortzen baitira marea arteko  
tarte horietan: itsaso aldera erakartzen  
gaituztenak mareak behera egiten duene-  
an; ibaian gora garamatzatenak mareak  
gora egiten duenean.

Azkar gertatzen dira, gainera, aldaketa  
horiek, eta oso-oso adi egotea komeni da.  
Bereziki arriskutsuak izan daitezke marea  
gorak estuario hondartzetan. Izan ere,  
itsasbeheran askotan sortu ohi dira ibaia-  
ren erdian hondarrezko irlatxoak, ustez  
seguruak direnak eta askotan ertzetik  
nahiko urrun ere egon daitezkeenak.  
Itsasbeheran oinez hel gaitzeko askotan  
ustezko irlatxo horietara, baina itsasoak gora egiten due-  
nean beherala inguratuko gaitu urak, eta kasu askotan ia  
bat-batean geratuko gara hondoa ezin ukituta eta uretan  
isolatuta, korronte eta zurrumbiloen menpe. Beraz, itsasbe-  
heran hondartzatik urruntzen bagara hobe da uraren mugi-  
menduari eta marea ordutegiari begirik ez kentzea.  
Marea arteko tarte horietan izan ezik, hondartza segurua  
da Toñakoa, ia batere olaturik ez duena. Olatu berezi bat,



ordea, nahiko ohikoa da: abiada bizian ibaian gora dato-  
rren olatu handi bakarra, itsasoa gora datorrela adierazten  
duena eta, dakarren indarra dela-eta, arriskutsua ere izan  
daitekeena.  
Hondartza txikia izan arren, jende asko erakartzen du  
Toñakoak. Zorionez, ondo hornitutako parke ederra dauka  
inguruan, itsasgoran hareatza txiki geratzen baita bertara-  
tzen diren guztiak hartzeko. Hondartza bera ere nahiko  
ondo ekipatuta dago.

**Udalerria: Mundaka.**  
**Luzera: 55 m.**  
**Azalera: Itsasbeheran, 5.600 m2.**  
**Itsasgoran, 1.800 m2.**

Mundakatik Gernikarako  
bidean, Mundakatik  
gehiegi urrundu gabe,  
Laidatxu izeneko hondartza  
daukagu Oka ibaia-  
ren bokalean sortzen den estuarioan.  
Hondartza txikitxo da, baina  
inguruetako jendeak estimu  
handian du, haurrekin joateko  
batik bat. Izan ere, Bizkaiko  
hondartzarik seguruenetakoa  
da.

Estuarioaren barruko aldean  
dagoenez, babes handia duen  
lekuan kokatua, ez da hor ia  
olaturik sortzen. Toñako hondartza aipatzerakoan ikusi  
ahal izango dugun bezala, estuarioko hondartzek ezauga-  
rri guztiz bereziak dituzte, eta askotan arriskutsuak ere  
izan daitezke, ez baitira gainerako hondartzen "legeetara"  
makurtzen. Arrisku iturri nagusia marearteko korronteak  
izan ohi dira estuarioetako hondartzetan, baina horiek ere  
ez dira gehiegi igartzen Laidatxun, hondartza estuarioko  
korronte eta zurrumbiloetatik nahiko urrun dago eta.  
Nolabait esateko, itsasadarrean baino gehiago laku baten

## L Aidatxu Hondartza



ertzean dagoela dirudi.  
Bestalde, hondartza ia laua da, maldarik gabekoa. Hori  
dela eta, hareatza oso poliki sartzen da estuarioan, eta  
urak ere astiro-astiro estaltzen du igerilaria. Hain laua  
denez, ordea, marea oso arin igotzen da, eta berehala  
estaltzen du urak hondartzaren zati handi bat. Hondar fina  
du, baina estuarioko uretan aurrera egin ahala lupetz an-  
tzekoa aurki dezakegu hondoan harearen orde. Nahiko  
ondo hornitutako hondartza da, eta bertan diharduten  
sorosleek ez dute, normalean, lan handirik izaten.

## Kanala eta Kanalape

Beste ibarrean, Kana-  
lape eta Kanalako  
senaiak itsasadarreko  
dragatze-lanetako hareaz  
estalita daude, Murueta  
untziolak beharrezkoa  
baitzuen hango uretako  
sakonera handitzea.  
Senaietan eta inguruko  
haitzetan estuarioetan  
ohikoa den Ostrearen  
kominitatea dago.  
Itsasoak gogor astindu eta  
jotzen du Laidako hon-  
dartzan osatzen duen hare-  
azko muturra. Bere ingu-  
ruko kosta tarte bi lerro-  
tan berezita dago: itsaso-  
ra irekita dagoena eta  
estuariora begirakoa; guz-  
tira, 800 bat metro dira  
luzera eta 170 inguru  
zabalera. Ondoan duna-  
sail bat dago, hondartzari  
lotua. Hondartzan ere,  
molusku eta algen hondarrak ikusten dira, batzuk ekaitzek  
eramanak. Hareatza muturraren eskuinaldeko arroak oso  
gogorrak dira, eta ia ez dago harri askerik; horko haitzeta-  
ko zuloetan aktinia bakan batzuk daude, eta leku babes-  
tuetako hareetan *Cyclonasa neritea* biltzen da.  
Osorik aztertutik, Mundakako itsasadarra ondo kontserba-  
tutako ekosistema bat da, oraindik ere jatorrizko komunita-  
teak bizirik dituen, *Ostrea-Mytilus* edo *Cerastoderma-*



*Scrobicularia* adibidez, bata haitzetakoa eta bestea haree-  
takoa.  
Estuarioko planktona ere oparoa eta askotarikoa da: itsa-  
soko komunitateak ditu kanpoaldean eta estuariokoak  
goiko aldean; tarteko aldean maiz agertzen diren dinofla-  
gelatuen marea gorriak, baina orain arte ez da aurkitu  
espezie toxikorik Barealdean, udan, *Cyclotella* generoko  
diatomeo asko hazten dira.

**Udalerria: Arteaga.**  
**Luzera: 70 m.**  
**Azalera: Itsasbeheran, 6.000 m2.**  
**Itsasgoran, 2.000 m2.**

Urdaibaiko Biosferaren  
Erreserban, padura  
erdi-erdian dago hondartza  
txikia: Kanala. Ur garbiak  
dauzka, nahiz eta haien  
kalitatea, estuario barruan  
dagoelako, itsasora zabalik  
dauden hondartzetakoa  
baino kaskarragoa izan. Ia  
ez du olaturik. Harea fin eta  
horitua du.  
Hain jende gutxi joaten  
delarik, Kanalak ez du eki-  
pamendurik, ezta sorosle  
ere. Bainua hartzerakoan, mareari erreparatu behar zaio.  
Itsasgora hasten denean, ertzetik urruti baldin bagaude

itsasadarrean gora eramango gaitu itsaslasterrak.  
Itsasbeherarekin, berriz, aurkakoa gerta daiteke.

## Kanala Hondartza





## KANALAPE HONDARTZA



**Udalerria: Arteaga.**  
**Luzera: 300 m.**  
**Azalera: Itsasbeheran, 100.000 m2.**  
**Itsasgoran, 40.000 m2.**

Urdaibaibako itsasadarreko eskumaldean, harea zuri fineko hondartza da Kanalape. Muruetako Ontziolak bere ontziak uretaratu ahal izateko eginiko hondar ekarpenengatik da hain handia Kanalape.

Aldapa handia du bere goiko aldetik behedora bitartean, eta ondorioz kontu handiz sartu behar da uretan. Ez da hondartza arriskutsua, olaturik ez duelako eta hondoan putzurik zein sakonunerik ez delako egiten. Baina itsaslasterrak igartzen dira marea alaketetan, eta une horietan ez da komeni izaten ertzetik asko urrutiratzetik. Urak biziak ala hilak izan, horren arabera handitu ala txikitzen da arriskua. Kontua behar da, beraz, itsasoaren atzaparretan ez erortzeko.

**Udalerria: Busturia.**  
**Luzera: 230 m.**  
**Azalera: Itsasbeheran, 25.000 m2.**  
**Itsasgoran, 10.000 m2.**

Busturiari dagokio Urbaibaiko paduraren eskuin aldean dagoen San Kristobal hondartza. Ez da, berez, hondartza naturala, Muruetako ontziolen jardueraren ondorio baizik. Izan ere, eraikitzen zituzten ontziak uretaratu ahal izateko dragatu egin zuten ontziolaren inguruko hareatza, hondo sakonagoa edukitzearen. Dragatu lan horietan ateratako harea utzi zuten lekuan sortu zen, hain zuzen ere, San Kristobal hondartza. Jatorri hori dela eta, goiko aldean bakarrik dauka hondarra San Kristobalek. Hondartza naturala izan beharrean artifizialki hondarrez betetako ibaiertz zati bat baino ez denez, uretan sartu ahala berehala aurkituko dugu oinpean ibaiari dagokion hondoa, lupetz nahiko deserosoz osatua. Bainua ere kontu handiz hartu behar da. Estuarioaren barrubarruko aldean dagoenez, ez dauka ia olaturik, baina korronteak indartsuak izan daitezke –gainerako hondartza hauetan gertatzen den bezala– marea

## SAN KRISTOBAL HONDARTZA



aldaketa tarteetan. Kontuan izan behar da, gainera, ez duela sorosle zerbitzurik. Bainatzeko oso egokia ez izan arren, oso txukuna da eguzkia hartzeko, eta inguruetako belardi zabalak ere erabili ohi dira horretarako. Paduran, paseo luzeak egin daitezke hondartza honetatik abiatuta. Txori behatokia ere badago hondartzatik gertu, aparkalekutik abiatuz gero ibiltzen hasi eta beherala begi bistan izango dugun egurrezko txabolatxo batean.

## LAIDA HONDARTZA



**Udalerria: Ibarrangelu.**  
**Luzera: 812 m.**  
**Azalera: Itsasbeheran, 59.100 m2.**  
**Itsasgoran, 38.200 m2.**

Urdaibaiko estuarioko eskuin aldean kokatua, Bizkaian bisitari gehien hartzen dituen hondartzetako da Laidakoa. Handia izanik, pasieran ibiltzeko eta surfa zein windsurfa egiteko leku aproposa da. Olatuei dago kienez, berriz, ez da arriskutsua. Izan ere, estuarioaren sarreran dago, eta hondartza irekiagoetan besteko indarrarekin jotzen dute olatuek bazterra. Halere, itsaslasterren arriskua nabaria da. Hondar fin eta horitukoa, aldapa txikia du eta pixkanaka sartzen da itsasoan.

Itsas maskor eta gastropodoak gogoko dituztenek bildumarako leku aproposa dute Laidako hondartzako ezker aldean. Itsasbehera da horretarako une aproposa. Itsaslasterrek berberetxo, tretxu, txirla... pilaketa handiak sortu dituzte, estuarioak leku egokiak baitira moluskuak pausatu eta hazteko.


Ur gardenak ditu Laida hondartzak, eta eguzki ordu asko egunsentitik ilunabarrera bitartean. Ondo zehaztu gabeko mugak ditu Laidako hondartzak, mareen neurrikoak baitira. Zenbat eta ur hilagoak izan, harea gehiago gelditzen da begi bistan; eta alderantziz: zenbat eta ur biziagoak izan eta gorago igo, itsasgorak hondartza zati handiagoa estaltzen du. Ezin da ahaztu, beraz, Laidan mareak oso azkar egiten duela gora, batez ere ur biziak diren egunetan.

Oso azal laua eta sakontasun gutxikoa duenez, minutu gutxitan metro asko igo daiteke ura, «marea olatua» deiturikoak bultzatuta. Ondorioz, argi egon behar du bainua edota eguzkia hartzen ari denak eskuoihala eta gainerako tresnak ez bustitzeko. Itsasgoran ahalik eta gertuen izatea gomenda-

tzen da, trasteak erretiratu beharra tokatuta ere. Ezkerreko bazterrean baino ez ditu Laidako hondartzak haitzak. Itsasbeheran harri batzuk agertzen dira.

Jende ugari joaten da Laidara, batez ere udako jaiegunetan. Batez beste 14.213 lagun biltzen direla diote estatistikek.

Astegunetan askoz ere jende gutxiago egoten da hondartza honetan: 3.824 lagun. Asteburuetan jendez betetzen da hondartza. Itsasbeherak irauten duen bitartean ez da toki arazorik izaten; aldiz, urak gora egiten duenean, eta batez ere itsasgoran, ez da guztientzako adina lekuri gelditzen. Nahiko erraza da Laidara heltzea. Gernikara doan errepidea hartu, eta han Ibarrangelurantz zuzendu behar du auto, motor edo bizikleta gidariak. Auto ilarak izaten dira oztoporik handiena udako jaiegunetan. Hondartzan bertan dago jateatea. Beraz, ez dago ibilgailurik hartu beharrik bazkaldu edo afaltzeko tokia aurkitzeko.





**Udalerrria:** Ibarrangelu.  
**Luzera:** 574 m.  
**Azalera:** Itsasbeheran,  
138.499 m2.  
**Itsasgoran,** 42.499 m2.

Ogoño lurmuturra Bizkaiko itsaslabarretatik altuena da, haitz-burutik kilometro laurdena pasatxo baitu ur-azalerainoko bertikalak. Kare-harrizkoa da, lehengo ur tropikaletako koral metatuek osatua. Lagako aldean material margokaredunez inguratutik dago, eta Elantxobekoan hare-harriz; hori dela-eta ez da neurri berean higatu alde guztietan, eta haitzar baten gisara sartzen da ur barnatan. Ogoño lurmuturraren azpian Lagako hondartza dago: duna-sail interesgarri bat dauka, orain lehengoratua, eta ekialdeko puntan, labarraren oinetako haitzen ondoan, erreka bat isurtzen da.

Oso leku astindua da, eta aterpea haitzetako zulo eta zokoetan bilatu behar da, hemen dagoen espezie bat, Sabellaria alveolata poliketoz arrezifegilea, urria ez bada ere, nekezago ageri da Bizkaiko kostako beste lekuetan. Arroketan ez dago harrijalerik, baina lapak ugari dira. Iriste zaileko lekuetan, babesgabeenetan hain zuzen, ur garbi eta bizietako lanperna espezie bat bildu zen (*Pollicipes cornucopia*). Lurmuturraren beste aldean, hemen ere labarren babesean, Elantxobe herri bitxia

## LAGAKO HONDARTZA



dago. Portu txiki eta gorde baten inguruan kokatua, goitik harako bidea ez da samurra, herria mendi-hegal oso aldapatsu baten magalean baitago, eta arazoak izaten dira lubiziaz direla eta.

### Laga hondartza

Urdaibaiko Erreserbaren iparraldeko muga, Lagako hareatzak Ogoñoko haitzpareta handia du eskumako aldean, eta ezkerrean, berriz, olatuen eraginez eratzak biribilduak dituzten haitz handiz osatutako nasa.

Herriguneetatik urruti eta Ogoñoko labarren barrenean egoteak itxura basatia eta bitxia ematen dio. Goiko aldean, itsasbazterreko duna ilara du. Landaredia halofilo ugaria du, ingurua are abegitsuago egiten duena, tartetan eguzkitan etzateko aukera eskaintzen baitu. Egun haizetsuetan, berriz, babesia ematen dute landareek.

Hondartzak babesik ez duenez, olatu handiek jotzen dute itsasertza, batez ere itsaski egunetan. Horrela, surfa zein windsurfa egiteko leku aproposa da. Piraguismo zale asko ere bildu izan du, olatuetan ibiltzeko asmoz. Kirolerako baldintza onak dituen, jende gazte asko egoten da Lagan, eta Ondar-gazte goitizena ere eman diote.

Urpekaritza eta urpeko arrantza egiteko ere leku egokia da Laga, ura bare dagoenean. Hondartzaren eskumako aldean jarduten dute, oso metro gutxira haitzak dituen hondoa ageri baita, Ogoño azpian, alga eta arraila ugariduna.

Lagak badu leku bitxi eta ezezaguna eskumaldean: harrizko senaia txikia, itsasoak haitz artean egiten duen sarreran kokatua. Bokale ondoan erdi ezkutatuta dagoen bidezidor batetik heltzen da bertara. Txalet baten ondo-ondotik egiten du aurrera bidezidorrak.

Olatu handiko egunetan da benetan arriskutsua Lagako hondartza, tiraina eragiten baitu, jendea itsasaldera eramanez.



## EA ETA OGEIAKO HONDARTZAK

Eako kala eta Ogellako hondartza, Ispasterren, gutxi ibilitako lekuak dira, eta esan daiteke egoera nahiko naturalean daudela. Biak itsasora irekiak daude, eta marearteko lautada ia guztiz estaltzen da itsasgorarekin, baita batzuetan desagertu ere, marea bizien sasoian. Ea ibaiaren alde bietan izen bereko herriko erdigunea zabaltzen da; ibaia labarren arteko hondartza batean itsasoratzten da, Natxitua eta Apikale mendien bitarteko haran estu eta aldapatsu bat zehartu ondoren. Tarte guztiko paisaia balore handi-handikoa da. Txikia izan arren, itsasorakoan ibaiak estuarioa sortzen du hondartzan zehar, 60 bat metro luze eta batez beste 150 metro baino gehiagokoa zabalea. Eskuinaldean portu txiki eta oso atsegin bat dago, baina kostata iristen da bertara, tarteko hareabarran eta hondoko hareetan txalupak berak geratzen baitira trabaturik. Itsasbeherarekin hareatza zabal bat agerian azaltzen da, eta ezkerrean hedatzen den harrizko lautada. Hondartza dagoen senaia estua da, eta mareak arin egiten du gora, beraz, kontuz ibili behar da hondartzaren ertzetako haitz txikiak aztertzekeotan. Estuarioaren bi aldeetatik kostaldearen bista ederrak daude. Urpekariak eta arrantzaleak maiz joaten dira Eatikhurbil dauden arrokazko kaletara (Lapatxa Natxituan; Bedaronatik, Eako muturra, aurrean Kai-arri uharte txikia duela).



Ogellako hondartza, Ea eta Ispaster arteko kostaldean, askoz zabalagoa da. Hara iristeko, Ispasterretik baino lehentxeago ezkerretara jo behar da errepideko adar batetik. Hareatzaren luze-zabalera aldakorra da, itsasoaren egoeraren arabera, eta ezkerrean, mendebaldean, marearteko lautada harritsu eta zabal bat dago; bertan era askotako fauna eta landareak daude, nahiko egoera onean gorde baita lekua.

Esan bezala, fauna nahiko aberatsa da, ohikoa, bestalde, babesgabeak eta erabat itsastar izanik ere ezkutalekuak dituzten lekuetan, batez ere tamaina desberdinetako aleak iristen badira aterpe-zuloetaraino. Ia fauna-talde guztiak daude, lokatzekoak izan ezik. Olagarro asko daude.

**Udalerrria:** Ea.  
**Luzera:** 120 m.  
**Azalera:** Itsasbeheran, 6.700 m2.  
**Itsasgoran,** 2.800 m2.

Herrian bertan dago Eako hondartza txikia, Argin ibaiaren bokalean. Izan ere, mendi artean heltzen da ibaia itsasora, eremu oso babestuan. Babes hori dela eta, arazo barik joan da pilotzen itsasoa harea, hondartza sortuz. Mendi artean sartua, hondartza oso bitxia da, ia batere olaturik gabekoa. Itsasoak ere

## EA HONDARTZA




poliki-poliki egin ohi du gora, eta hondartza segurutzat har daiteke Eakoa. Ur oso garbia isurtzen du ibaiak hondartzan honetara, eta hori dela eta ibaia gertu duten hondartzetan ezohikoa den bandera urdina du Eak, eta urpekaritzarako ere oso egokia da. Arazoa, berehala betetzen dela jendez...



**Udalerria:** Ipazter.  
**Luzera:** 175 m.  
**Azalera:** Itsasbeheran, 13.125m.  
Itsasgoran, 5.250 m2.

Herrigunetik urrun, mendien magalean, ia basatia dirudi Ogeiak. Oso egokia da mendia eta itsasoa uztartzea gogoko dutenentzat, belardiak ere aurki daitezke-eta hondartzatik gertu. Hala eta guztiz ere, ez da jende gehiegi bertaraten, eta hori ere abantaila da...



## OGEIA HONDARTZA



Marearteko zabalgunek handia du Ogeiak aurrean, eta horri esker fauna aberatsa dago bertan, baita hori ikustera joan ohi den urpekari ugari ere. Horren ordainetan, ordea, berehala agertzen da hondo harritsua, bainua deseroso bilakatuz.

## LEKEITIO ETA MENDEXAKO HONDARTZAK

Lea ibaiaren estuarioan Lekeitio dago, herri interesgarria bera. Ibaiaren ezker aldean, portuko kaia-aren ondoan, Isuntzako hondartza dugu, eta eskuinaldean Salbaje edo Karraspio Txiko eta Karraspio daude, berauek Mendexa herriko parte. Bitxia da, halaber, San Nikolas uhartetxoa, tonbolo batez lehorrari lotua. Tonbologia urpean geratzen da itsasgoran; San Nikolasen, itsasbeheran, likenek, algak eta animaliek osatzen duten beharko zonazioa azter daiteke.

Learen bokalaren eskuinaldeko padura txikian habitat mota horri dagozkion landareak ditugu.

Inguru horretan, itsasaldeko habitat desberdinetatik ondoen kontserbatuak Karraspioko hondartzan daude. Ekialdeko puntan eremu attokatsu baat dago, eta bertako putzu ugarietan, koralezko txertakorrez gain, *Corallina Sargassum muticum* eta *Gelidium attenuatum* mezkoko sorta bat hazten dira. Horietaz gain, beste batzuk ere elkartzen dira: *Holothuria tubulosa* eta *Holothuria forskali* holoturiak, *Marthasterias glacialis* eta *Asterina gibbosa* espezieetako izar asko, trikuak, polike-toak, muskuiluak, aktinia eta anemona ugari, etab. Hondartza leku egokia da, bestalde, kostalderatutako animalia taldeak aztertzeko. Urteko sasoi jakinetan, maiz iristen



dira *Gelidium* eta *Plocamium* generoetako errodofizeoak; haietako asko, batez ere *Gelidium sesquipedale* generokoak, multzo handietan zabaltzen dira hondartzan zehar. Mendexan kala harritsu batzuk daude, eta haietara kostaldean zehar Ondarroaraino doan errepidetik irits daiteke -nekez bada ere-. Egiluz kala, Lekeitiotik hurbilago, eta Endai, ekialderantz, dira kala horietako bi. Errepidetik ikusten den kosta tarteak itsasorantz egiten du, malda leun eta arrokatu batean beheraka. Han-hemenka, kostako erreka txikiak itsasoratzen dira, batzuetan ur jausi modukoak sortuz. Lehorretik kostata gozatuko da bista horretaz.

## ISUNTZA HONDARTZA



**Udalerria:** Lekeitio.  
**Luzera:** 250 m.  
**Azalera:** Itsasbeheran, 24.260 m2.  
Itsasgoran, 8.380 m2.

Isuntzako hondartza ederra Lekeitio erdi-erdian dago, arrantza portuaren ondoan. Murru luze batek banantzen ditu biak. Harea fin eta urre kolorekoa du. Haitzik gabeko hondartza da, eta poliki-poliki sartzen da itsasorantz. Beraz, bainua hartzeko tokira gerturatzeko garen heinean, ez dugu ez sakonuneekin ez irtenguneekin topo egiteko arriskurik. Alderdi horretatik hondartza segurua da. Olatu handirik ere ez du, ezta gutxiagorik ere. Bere goiko aldeak porlanezko pasealeku luze batean du amaiera, etxe eta



zuhaitz artean. Bazterretik, ezker aldean, itsasoaren bista ederra eta Santa Katalina uharte polita ikusten dira.

Herrigunetik hain gertu dagoenez, udan jende asko joaten da bertara, jaiegun zein astegunetan. Piraguismoa, bela eta urpekaritza ere egin daitezke Isuntzan. Ez du haitzik bazterretan. Ezkerreko aldean -hondartzatik itsasora begira gaudela kontuan hartuta- arrantza portuko murraino bukatzen da. Eskumako aldeak, berriz, Lea ibaiaren bokalea du muga. Horregatik, bainua hondartzaren eskualdean hartzen badugu, ezin da itsas bazterretik asko urrundu. Errioren eragin eremutik gutxieneko eta zentzuzko tarte zaindu behar da, itsasgoran eta itsasbeheran bainu-hartzailea itsasadar barrualdera edota itsasora eramateko adinako itsaslasterrak sor daitezkeelako. Horixe izan behar da kontuan, batez ere, Isuntzako hondartzan.



**Udalerria:** Mendexa.  
**Luzera:** 462 m.  
**Azalera:** Itsasbeheran, 140.380 m2.  
Itsasgoran, 28.380 m2.

Nahiz eta Mendexako udalerriarena izan, Karraspio Isuntzako hondartza-tik oso gertu dago, Lea ibaiaren beste ertzean. Itsasgoran eta itsasbeheran azalerak duen alde handia Learen bokaleak sortutako estuario zabal eta sakonera txikikoak eragiten du. Hondoan harea eta material ugari pilatu du, hondartza sortuz. Ale fineko harea du Karraspiok, kolore horikoa.

Malda txikikoa izateak uretan astiro sartzea ahalbidetzen dio bainu-hartzaileari, bat-bateko sakonunerik igarri gabe eta



## KARRASPIO HONDARTZA



urak nola gorputzean gora poliki-poliki egiten duen kontrolatuz. Olatu handirik ez du izaten, eta ur lasaiak dira hondartza honetakoak. Baina kontu handia behar da ezkerraldean, errioaren ondoan, sortzen diren itsaslasterekin. Itsasgora hasitakoan, itsaslaster indartsu batek egiten dio bultza bainu-hartzaileari bazterretik estuario barrualderantz. Beste horrenbeste gertatzen da itsasbehera hasten denean. Baina kasu honetan are arriskutsuagoa da itsaslastera, erriotik datorren urak berak itsasaldera eramaten baitu bainua hartzen ari den laguna. Jende asko joaten da Karraspio era, batez ere jaiegunetan. Astegunetako bainulari kopurua bikoiztu egiten da asteburuetan.

## ONDARROAKO HONDARTZA

Ondarroako arrantza-herria Artibai ibaiaren bokaleko ezkerrean dago. Senaiaren punta batean Saturrarango muturrak babesturik dago, eta mendebaldeko mugan portuko babes-dike bat dago, Barrakomuturratik luzatzen dena. Ibaia ekialderantz igarota zabaltzen den hareatza etenik gabea da itsasbeheran, eta portuko sarrerako babesdikearekin batera hareatza handiagoa bihurtzen da (Arrigorriko hondartza). Saturrarango muturreantz segituz, Mutrikun sarturik (Gipuzkoa), izen berekko hondartzan egongo gara oraindik.

Arrigorri/Saturrarango hondartzak nahiko babestuak dira; ekialdeko puntan ertz bitxiko harkaizti bat dago. Hondartza hauetan, itsasbeheran azaleratzen diren harealokatzezko hondoetan poliketoak eta kisku bikoak erruz ageri dira. Hondartzaren eskuineko harkaitza eskailera batez zeharkaturik, kala harritsuak eta lautada arroksukoak topatuko ditugu: arrakaletan eta putzuetan marearteko haitzetako alga eta animalia ugari agertzen dira, espezie askotakoak.

Ur geza iristen den lekuetan ugariak dira klorofitoak. Itsasoaren eragina nabarmenagoa denetan, ordea, ezkerrean aurkituko dugu *Gelidium pusillum*, beste batzuekin batera (*Codium decortatum*, *Codium adherens*, *Bifurcaria bifurcata*, *Cladostephus spongiosum*, *Sargassum muticum*, *Corallina* eta *Dyctiota dicotoma*). Aktiniez eta anemonez gain, ugariak dira patellak eta chitumallusak ere. Bestalde, Arrigorri/Saturrarangoen, beste lekuetan urria den espezie bat azaltzen zaigu askotan: *Aplysia punctata*.



**Udalerria:** Ondarroa.  
**Luzera:** 150 m.  
**Azalera:** Itsasbeheran, 7.425 m2.  
Itsasgoran, 4.125 m2.

Artibai ibaiaren bokalean, Ondarroan, dago Arrigorriko hondartza txikia. 50 metroko murrak bereizten ditu bokalea eta hondartza. Herriguneetatik gertu dauden hondartza guztietan bezala, jende asko biltzen du. Ibaitek heltzen den kutsadura da hondartzaren eragozpena, eta horregatik falta zaio bandera urdina. Esan dezagun bokale ondoan kokatutako hondartza gutxi duela bandera urdina Europan. Arrigorrik, poluzio apur bat badu ere, kalitate oneko urak ditu.

Aldapa txikia du eta pixkanaka-pixka-



**Udalerria:** Mutriku.  
**Luzera:** 300 m.  
**Batez besteko azalera:** 27.000 m2.

Mutrikuko hondartzarik ederrena eta Gipuzkoa osoko bitxienetakoa da Saturrarango. Herriaren mendebaldean dago, Ondarroako bizkaitar hondartza auzokoaren aurre-aurrean. Batetik bestera oinez joan daiteke, aparteko esfortzurik gabe. Ilargierdi itxurakoa, haitz zorrotza du eskuinaldean. Honek sortutako uharteak itsasbeheran baino ez du bat egiten hondartzarekin, eta oso itxura berezia ematen dio.

Saturrarango oso haizetsua da eta olatu handikoa. Babesteko eta higidurari aurre egiteko, olatu-horma egin diote ezkerraldean. Hain zuzen ere, olatu-horma ingurua da arriskutsuena itsaso zakarreko egunetan. Horrelakoetan seguruagoa da eskuinaldea, harkaitzek babesa ematen dutelako. Baina, inolako zalantzarik gabe, erdialdea da lekurik seguruena, itsagoraren zein itsasbeheran.

Windsurferako, piraguismoarako eta, batez ere, itsaspeko arrantzarako zein urpekaritzarako leku egokia da, ezkerraldean marearteko zabalgunek handia duelako. Arroka luzez osatua, itsasoak sarrera txikiak sortu ditu, kolore horiko hareapikorrak utziz. Hondar senaia txikerrak ere eratu dira, "Zazpi hondartzak" izenekoak. Itsasgoran, urez ia oso-osorik estalita gelditzen dira guztiak.

## ARRIGORRI HONDARTZA



naka murgiltzen da itsasoan, jauzi handirik gabe. Ez da bereziki arriskutsua, baina itsasertzetik asko aldentuz gero, batez ere ezkerraldean –ibaia itsasoratu eta murrak gaintzen den lekuan–, itsaslasterak nabaritzen dira itsasgora eta itsasbehera hasten diren unean. Ibai barrualdera ala itsas zabalera egin dezakete bultza. Bestalde, ontzi trafikoa handia –arrantza zein laketon-tziak– du Arrigorri hondartzak eskumako aldean. Ondorioz, ezin da bainu eremua ezkerraldeetik (hondartza eta ibaia banantzen dituen murrutik) gaintitu.

## SATURRARANGO HONDARTZA



Handiena Saturrarango hondartza ostean dago, eskuinaldean. Hara heltzeko, nahikoa da 1564an eraikitako jauretxe zahar baten ondoan dagoen harrizko eskailera igotzea. Txurruka-Areilzaren harmarria du jauretxeak. Mutrikuko Kondeak 60ko hamarkadaren hasieran erosi zuen eraikina eta haren ondorengoak dira gaur egun jabeak. Nudistak joaten dira, gehienbat, kalea hareatsu horietara, eta jende asko biltzen dute udan. Saturrarango hondartzara zein "Zazpi hondartzetara" arratsaldeko azken ordura arte heltzen dira eguzki-izpiak, eta hondarretatik ezin hobeto ikusten da eguzkia sartzen.



## PORTUA ETA BURUMENDI HONDARTZAK

**Udalerria:** Mutriku.  
**Luzera:** 180 m.  
**Batez besteko azalera:** 5.400 m<sup>2</sup>.

Mutrikuko kaiaren ertzean dago Portuko hondartza, herrigunean bertan. Olatuek gogor jotzen dute, itsasora oso irekia delako eta batere babesik ez duelako. Eskumaldean —hondartzatik itsasora begira gaude-larik— kai-muturreko pareta du, eta ezkerrean, berriz, eremu harritsua eta ibilgaitza. Marearteko fauna gogoko dutenak ditu bisitari bakarrak alde horrek. Aldapatsua da Mutrikuko hondartza; beraz, arretaz bainatu behar da. Dena dela, bainurako aproposak diren gunetan ez da zulorik egiten, itsaski handiko egunetan izan ezik, eta horrelakoetan debekatu egiten dute bainua hartzea. Hondartzaren beheko aldean arroka ugari agertzen da, eta itsasbeheran bainu-gunea hartzen dute. Horregatik, itsasgora eta marea beheara joaten hasten den uea dira igerian egiteko unerik aproposenak, nahiz eta orduan leku gutxi izan jendea-  
rentzat. Eguzkia hartzeko, berriz, goizekoak eta eguerdikoak



—arratsalde erdira arte— dira ordurik onenak. Urpekaritzarako eta itsaspeko arrantzarako hondartza egokia da, hondo arro-katsuak dituelako. Beste hondartza bat ere badute Mutrikun marearteko zabalgunetik bikaina duena, Burumendikoa. Beste hirurak baino txikiagoa da, 80 metro luze dituen. Gogor jo ohi dute bertan olatuek. Soroslerik eta oinarritzko zerbitzurik badu, eta oso gogoko dute urpekarie.

**Udalerria:** Mutriku.  
**Luzera:** 120 m.  
**Batez besteko azalera:** 9.960 m<sup>2</sup>.

Udalerriaren ekialdeko ertzean, Deba ibaia-  
ren bokale ondoan Ondarbeltz izeneko hon-dartza du Mutrikuk. Harea beltzak eman zion izena. Hondartza erdi urbano honek oso ur lasaiak ditu babesa ematen dion morru luze-  
arri. Aldapa txikia duenez, ez du aparteko arriskurik bainua hartzeko asmoz joaten diren lagunentzat. Dena dela, bi eragozpen ditu. Uraren kalitate kaskarra da bata. Deba ibaiaren bokaletik oso gertu dagoenez, ura ez da itsaso-  
ari irekiak eta herrigune zein hiriguneetatik urru-ti dauden hondartzetakoak bezain gardena.

## ONDARBELTZ HONDARTZA





Eguzki eza da bigarren eragozpena. Mendiak gain-gaine-an dituenek, arratsalde erdian agertzen dira lehen itzalak, pixkanaka-pixkanaka eguzkirik gabe geratu arte. Eguzkia sartzen ere ezin izaten da ikusi, eta horrek ere erakargarritasuna galarazi egiten dio. Beheko aldean arroka ugari ditu, eta marearteko zabalgunean urpekaritza zein itsaspeko arrantza egin daitezke. Ur lasaiak dituenek, egun haizetsuak oso aproposak dira windsurfa egiteko. Esan behar da urtean asko izaten direla egun haizetsuak Ondarbeltzen. Aldiz, haizeak indar txikiagoz jotzen duenean, windsurfa beste baterako laga eta pira-gismoa egitea gomendatzen dute.



**Udalerria:** Deba.  
**Luzera:** 260 m.  
**Batez besteko aza-  
lera:** 18.200 m<sup>2</sup>.

Gaztelak itsasora zuen pasabide laburrenaren azken herria eta merkatalgu-ne garrantzitsua izan zen Deba. XIX. men-dean, Nerbioiko itsa-sadarraren industri-garapena hazi zen heinean, indarra gal-duz joan zen hiribil-dua merkatal-arloan. Aldiz, udaldian opo-  
rrak igarotzeko gun-e bihurtu zen. Ordutik, hotelek, jaiek, mendi-txangoek eta, batez ere, hondartzak egin dute ezagun Deba. Aurten obretan ari dira Debako hondartzan, eta bainurako baldintzak ez dira egokienak. Gainera, egindako lanek itsaslas-  
terrak eragin dituzte, bertakoek diotenez. Gune arriskutsuena "txu-  
rra" izeneko da, harkaitz aurre-  
aurrean, zuloak ere badituelako. Hondartzak badu beste zati bat, Lapari izeneko, eskuinaldean. Itsasbeheran baino ez da hon-dartza bihurtzen, itsaslabar barrenean dagoen harritzaren jarraian harea-  
eremua agerian geratzen denean. Debako hondartzaren eskumako ertzean, arroka batzuen ondoan, hasi eta itsaslabar baten barrene-an bukatzen da hondartzatxo. Eskailera bat igoz hel daiteke itsaslabarrera. Arroka ugari ditu tartekatuta, eta marearte-  
ko fauna ugaria: karramarroak, izkirak... Marea gora dato-  
rrenean urak estali egiten du erabat.



Hondartza biek harea ilun samarra dute, arbel mendiak gertu dituztelako. Goiko aldean, aldiz, artifizialki eram-an-  
dako hondarrari esker, kolore argiagoa du. Jende asko hartzen du Debako hondartzak. Senaia barruan dago, hai-  
zetsua da eta olatu handiak heltzen dira bertara. Bainua hartzeko zenbait gunetan itsaslasterrak nagusitzen dira, itsaski egunetan berezi-  
ki. Itsasgoran, aldapa pixka bat hartzen du hondartzak uretan sartu ahala, baina itsasbeheran berdindu egiten da, ia erabat laua geldituz. Surfa itsaso zakarrarekin baino ezin da egin, eta ezke-  
rraldean soilik. 600 autoren-tzako parkinga du, Kalbeton Zumardi ederra eta hon-dartza bereizten dituelarik. Zuhaitz ugari dago bertan.







## ITZURUN HONDARTZA

**Udalerria:** Zumaia.  
**Luzera:** 270 m.  
**Batez besteko azalera:** 20.250 m<sup>2</sup>.

Talaimendi eta San Telmo mendien artean gordeta, Itzurun da Zumaian herriguneko hondartza. Nahiz eta harearen kolorea iluna izan, ur gardenak ditu, batere kutsadura aztarnarik gabeak, eta horri esker lortu ditu bandera urdina eta nazioarteko onarpena. Itsaski egunetan, olatuak indartsu heltzen dira hondartzara, ez baitu babesik, eta bainua hartzea arriskutsua da, zurrunbiloak eta aldapak sortzen direlako ur ertzean. Arrokek hiru zati egiten dute Itzurun. Ikusgarriena ezkerraldekoa da, San Telmoko basiliza barrenekoa. Pare hartan, hormatzar bertikala itsasoan murgiltzen da, harkaitz-zulo gorriak eratuz.

Flysch izeneko geologi-fenomeno bitxia ikusten da bertan. Urak, haizeak eta lur barruko indarrek eragindako higi-



durari esker, ehunka urtez bildutako harea mineral, animalia aztarna fosilak eta landareak ikus daitezke. Itzurun eta Deba artean, hain zuzen ere, Mesozoikotik Tertiariarako jauzia antzematen da. Itzurunen ondoan beste hondartza txiki eta arrokatu bat dago, Algorrikoa. Ez du sorosle zerbitzurik eta inolako instalaziorik. Ur bizi eta itsaso zakar egunetan, arriskutsua izan daiteke tirainagatik. Flysch fenomenoak ikusteko aproposa ere bada Algorri. Marearteko fauna eta flora ekosistema oso aberatsa duenez, Eusko Jaurlaritzak biotopo babestua izendatzeko tramiteari ekin dio. Ozeanografi-azterketak eginak daude, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eman beharreko oniritziaren zain daude.



**Udalerria:** Zumaia.  
**Luzera:** 350 m.  
**Batez besteko azalera:** 61.250 m<sup>2</sup>.

Santiagoko hondartza Zumaiaiko portuko bokale ondoan dago. Bi morru luzeren artean, olatu-hormaren eta errepideari eusten dion paretaren artean, harea-metaketa sortu du bertan itsasoak. Herriguneari bertan egon ez arren, ez da asko ibili behar hara heltzeko. Autoa Zumaian utziz gero, oso ibilaldi laburra dute hondartza zaleek haraino, eta txalupaz ere burutu daiteke bide hori. Hondartza lasaia da Santiago, olatu handirik gabekoa, bi morruok ematen dioten babesari esker. Kirol-portua ere badu Zumaiaik eta ontziak bi morru horien artean iristen dira itsasora. Beraz, haiekin ere arreta izan behar du bainu-hartzaileak. Hareak ez du aparteko gorabehera eta zulorik bainua hartzeko gunean eta, udako egun bakan batzuetan izan ezik, olatuek ez dute zurrunbilo arriskutsurik sortarazten. Errioren bokalean baino ez da itsaslasterrik izaten. Beraz, igerian ez da lehen morruaren ezkerraldera igaro eta bokale parean jarri behar, toki hartan edozein lagun eramateko adina indar izaten baitu urak. Arreta



handia behar da toki hartan. Hondartzaren eskuinaldean, itsasbeheran, arroka ugari agertzen da marearteko zabalgunek luzea osatuz. Gaingainen Zumaiaitik Getariara doan errepidea du. Eredu hareatsua du Santiagoko hondartzak goiko aldean, antzinako duna-ekosistemaren aztarna bakarretakoa. Egun, hori bai, oso hondatuta daude dunak, jende asko ibiltzen baita bertan. Atzealdean, gerizpea ematen duen zuhaitz polita dago. Udako egunik beroenetan gus-tura hartzen dute haren babesak eguzkipetik ihes egin nahi dutenek. Hondartza eguzkitsua da Santiago, eta piraguismoa zein windsurfa egiteko egokia.



## GAZTETAPE HONDARTZA



**Udalerria:** Getaria.  
**Luzera:** 210 m.  
**Batez besteko azalera:** 13.650 m<sup>2</sup>.


Gaztetapeko hondartza Getariako kaiaren atzealdean dago, San Antongo uhartetxoruntz aurrera egiten duen lur-mihiaren ondoan. «*Getariako sagua*» izenez da ezagunagoa San Antongo uhartetxoa. Duela ia hamar urte, itsasoak kaiaren atzealdean eratutako harea eta uharri metaketa baino ez zen. Itsasgoran, urek irentsi egiten zuten. Handitze eta birmoldaketa lan neketsuaren ondoren, harena, 210 metroko luzera eta batez besteko 65 metroko zabalera hartu ditu. Itsasgoran ez da inoiz urpean desagertzen,



eta bainu-hartzaile talde handia kabitzeke adinako eremua geratzen da begibistan. Malkorbe ahizpa lasaiaren ondoan, Gaztetape basati eta artifiziala surfa, bodyboarda edo piraguismoa –hau olatu txikiko egunetan– egiteko edota uretako motorrean ibiltzeko bereziki aproposa da. Olatuekin jolas egitea gogoko duten eskarmentu handiko bainu-hartzaileek ere oso gustuko dute, baina kontu handia behar da tirainarekin. Halakoetan bandera gorria jarri eta bainua debekatu egiten dute. Lekurik arriskutsuenak bi bazterrak dira. Urpekaritza eta itsaspeko arrantza zaleek muxar eta karraspio ugari aurkitzen dute uhaitz ondoetan.



## MALKORBE HONDARTZA



**Udalerria:** Getaria.  
**Luzera:** 420 m.  
**Batez besteko azalera:** 31.500 m<sup>2</sup>.

Getariako kaiaren ondoan dago Malkorbeko hondartza lasaia. Herrigune barruko hondartza da, harea fin eta horitukoa. Oso aldapa txikia du, eta bainu-hartzailea pixkanaka-pixkanaka sartzen da itsasoan. Hondoan ez dago bapatean altuera aldaketa handia eragiten duen inolako putzu eta zulorik. Nahiko hondartza lasaia da, neurri egokiko olatuak dituen, windsurfa zein piraguismoa egiteko aproposa. Kai-muturrak ematen dion babesa da lasaitasunaren arrazoietakoa bat. Eskuinaldean kokatuta, portutik bereizi eta horma lana egiten du morru honek, olatuak geldituz. Urpekaritza eta itsaspeko arrantza ere arriskurik gabe egin daitezke. Hori bai, gero eta arrain gutxiago eta txikiagoak daude inguru hartan, urpekarri armada



zabalak erasotu baititu ur haiek azken urteotan.

Portu aldamenean egon arren, ur garbiak eta kalitate handikoak ditu Malkorbek. Horregatik eman diote bandera urdina. Bainu-eremua ondo zehaztuta du ur gaineko buiekin, eta erdialdean hondartzan bertan aloka daitezkeen uretako patinentzako pasabidea dute jarria. Ezkerraldean –hondartzatik itsasora begira gaudela kontuan hartuta– mendia dago, horma harritsua duena, eta haren gaineko aldean errepidea. Malkorbeko hondartzak ez du bazter arroksurik, eta oso eguzkitsua da. Jaiegunetan, jende lepo egoten da. Malkorbek haurrentzako jolasgunea eta hondartzako kirolak egiteko eremua ditu, baita argibide-eta, megafonia, dutxak, komunak, edateko ura ematen duten iturriak, zakarrontziak, elbarrientzako arrapalak... Bainu zaintza eta sorospen zerbitzua du goizeko 10etatik arratsaldeko 7:30ak arte, etenik gabe. Eta ondoan duen parkinga, berri, ordaintzekoa da.





## ZARAUTZ HONDARTZA



**Udalerria:** Zarautz.

**Luzera:** 2.500 m.

**Batez besteko azalera:** 200.000 m<sup>2</sup>.

Iparraldera begira dago Zarauzko hondartza, Alle-puntako mendebaldean eta Talai-Mendiko ekialdean harkaitzen tartean. Mendebaldeko bazterrean ontzi txikientzako kaia kaskar bat eta N-634 errepidea ditu; eta ekialdekoan, Inurritza ibaiaren bokalea, padura osatuz.

Hondartzaren goiko aldean itsas pasealekua dago. Luzera osoaren hirutik bi betetzen ditu pasealekuak. Beste zatiari ia berezko egoeran eusten diote, duna eta guzti. Eusko Jaurilaritzak biotopo babestu izendatu zuen 1997ko otsailean, eta golf zelaia du gainean. Hondartza nahiko aldakorra da Zarauzkoa. Batetik, olatuak indartsu heltzen dira eta aldaketa ugari eragiten dute: harea mugitu, errekek sortu... Bestetik, alde handia dago itsasbehera eta itsagoraren artean, eta horrek erabat aldatzen du hondartzaren egitura. Harea eremua handitu edo txikitu egiten da, eta aldapak ere gorabehera handiak izaten ditu marearen arabera.

Zarauzko hondartzak oso bereak ditu zurrunbiloak, haizearen



edo ilargiaren eraginez mugitutako itsaslasterrek sortutakoak. Itsaso zakarrarekin, surferako egokia da. Horrelako egunetan, surfilariz betetzen dira kirol horretarako prestatuta dituzten itsas-eremuak. Piraguitak ere ibili ohi dira, ezker aldean, kaia txikitik gertu, olatu handiko egunetan.

Harea fina du, gainean oinez ibiltzeko oso atsegina. Berez, herriko erreketatik eta Zarauzko diapiroko materialaren eraipean eta banaketatik etorritakoa da harea, baina gaur egun ez da hondar berririk heltzen. Itsaslasterrek baino ez dute mugitzen harea batetik bestera, hondar-tzaren egitura aldatuz eta duna txikiak sortuz eskuinaldean. Itsasoak ez du hondarrik eramaten, lekuz aldatu baizik. Eskuinaldean, Inurritza ibaiaren ertzean, nudismorako eremua ere badu du Zarauzko hondartzak, eta zerbitzu bikainak hondartza osoan.

### Erreginen hondartza

«Erreginen hondartza eta hondartzaren artean erregina» esloganaren bidez eman ohi da Zarautzen berri mundu osoan. 1865ean Isabel II.a erreginak itsas-bainuak hartzeko aukeratu izanak



zerikusi handia izan zuen europar aristokrazia eta goiburgesia Zarautzera erakartzeko.

Geroago, Belgikako errege-erreginak, Ingalaterrako Eduardo erregeak eta Espainiako Alfonso XIII.ak eta emazte Victoria Eugeniak ere bisitatu zuten herria.

Egun euritsuetan, zirapean, itsasbeherak hondartzan uzten dituen marrazkiak begiratzu paseatzeko, futboleko ala palan jokatzeko, olatu urdin, berde edota gris —zeruaren kolorearen arabera— zarata entzunez korrika egiteko aproposa da Zarauzko hondartza.

Baina, esloganak ondo dioenez, hondartzaren artean ere erregina da Zarautz, eremu oso irekia duena, zuzena eta zabala. Iparraldera, zeruarekin bat egiten du mugarik gabeko ozea-



noak, ondo zehaztu gabeko koloredun arrasto mehean.

Inguru berde eta lasaiak jartzen dizkio mugak hondartzari, Santa Barbara eta Talai-Mendi artean. Eta hondartzaren ertzean, ilunabarraren eta lehen izarren babespean, oinez ibiltzeko eta itsasoari begira egoteko toki paregabekoa da itsas-pasealekua. Eta, uda partean, animazio handiko lekua.

**Udalerria:** Orio

**Luzera:** 200 m.

**Batez besteko azalera:** 11.400 m<sup>2</sup>.

Orian, Oriaren bokaleko ezker aldean, Antillako hondartzaren parean dago Oribazargo hondartza. Ia olatu gabekoa da. Uren baretasunak ez du esan nahi, halere, arriskurik ez duenik. Errioren barrualdean dagoenez, itsaslaster indartsuak sortzen dira, marea beheara zein gora hasten denean. Marea aldaketak ematen direnean, beraz, ez da gomendagarria bazterretik asko urrutiratzea, batez ere igerian ondo ez jainez gero. Bainua hartzea debekatuta dute hondartza

## ORIBAZAR HONDARTZA



honetan, lokatza handiak daudelako eta uraren kalitatea oso kaskarra delako. Kutsadura-puntua ere badu. Bainu-hartzailerek, deba dela, ez diote jaramonik egiten dabekuari bero handiko egunetan. Aldapa txikia du eta ez du alatuak eragindako tiranik. Aintziretako hondartzaren antz handia du, beraz. Eguzkia hartzeko eta paseatzeko aproposa sa Oribazar. Goiko aldean, gaine-ara, belardia du, jende askok etzateko edo ogitartekoak jateko arabiltzen duena. Hondartza ondo-ondorain hel daiteke autoan, eta oso lagun gutxi egoten denez, inori enbarazurik egin gabe har daiteke nahi adina leku. Erri barruko hondartza denez, ez du medusarik, ezta xabihoirik ere.



# ANTILLA HONDARTZA



**Udalerrria: Orio.**  
**Luzera: 220 m.**  
**Batez besteko azalera: 19.800 m2.**

Oria ibaiaren bokaleko eskuinaldean dago San Juan edo Antillako hondartza, Orion, Anarri eta Mollarri ize-neko bi haiz handiren artean. 1977an berritu zen eta ordutik hondartzak berak zein inguruak aldaketa handiak izan dituzte. Handitzeaz gain, parke ederra egin zen bertan, jolas eta ziburuekin. Harea finekoa, oinutsik ibiltzeko zein etzanda egoteko aproposa, bainua hartzeko, aldiz, oso arriskutsua da, ez bakarrik irekia delako eta olatuak zuzen eta indartsu hel-tzen direlako, baita ezkerraldean sortzen diren itsaslasterrengatik ere. Mareak zein haizeak eragiten ditu itsaslasterrok ibaia bideratzeko eraikitako harrizko morruaren ondoan. Itsasbeheran ezin da gainditu erria eta hondartza banantzen dituen morrua, itsaslaster indartsuak sortzen direlako bokalean. Marea behera doanean itsaso aldera eramaten du urak bainu-hartzailea eta gora doanean,

berriz, erria barruea. San Juan hondartzako olatuek iparretik eta ipar-mendebaldetik jotzen dute ia urte osoan, eta surfa zein windsurfa egiteko aproposak dira, neguan, halere, higadura handia izaten du eta itsasgoran harea asko eramaten dute urek. Hondartza haizetsu honek aldaketa handiak izaten ditu mareen arabera, itsasgoraren eta itsasbeheraren arteko aldea lau metrokoa baita. Honen ondorioz eta olatuen eraginez, etengabe aldatzen dira bere itxura eta tamaina: Igerian ondo ez dakitenek kontuz sartu behar dute uretan, oso zoru gorabeheratsua eta zuloduna duelako. Oso eguzkitsua da Antilla. Eguzkiizpiak ilunabarrena arte heltzen dira bertara, eta jende asko eguzkia ezkutatu arte egoten da bertan. Lasaitasuna du ezaugarrietako bat, baita udako jaiegunetan ere. Jende gehien joaten denean ere beti izaten du tarteren bat hutsik. Astegunetan, berriz baretasuna nagusitzen da Antillako hondartzan. Dirudenez, jendeak nahiago du bete-beteak egoten diren Donostiako hondartzetara edo Zarauzkora joatea...


Erria eta hondartza banantzen dituen 300 metroko morrua pasealeku atsegina da. Ibiltari eta arrantzale asko hartzen ditu urte osoan. Marea behera joaten denean, krustazeo asko agertzen da morruko arroken artean; karramarroak, izkirak eta nekorak. Haien ondoan ikusten dira, baita muskuiluak. Hondartzaren mendebaldean bada golko txiki bat. Itsasbeheran, hondartzako bat begibistan gelditzen da bertan.



**Udalerrria: Donostia.**  
**Luzera: 600 m.**  
**Batez besteko azalera: 60.000 m2.**

Ondarretako hondartzak, Kontxakoak bezala, harea fina eta itsaslaster edo korronte zein aldaparik eza ditu ezaugarri nagusiak. Bada, halere, oinarriko desberdintasuna bataren eta bestearen artean: Ondarretaren ezkerraldeko ertzean, Haizearen Orraziaren ondoan, arroka eremu zabala du, marearteko fauna aberatsekoa. Kontxako hondartzak ez du halakorik.

60.000 metro koadrotik gorako azalera du Ondarretak itsasbeheran, ur ertzetik pasealekura bitartean. Aldiz, itsasgoran ia erdiraino txikitzen da: 35.000 metro koadrora. Oso babes handia du, badia natural batean barruan dagoelako. Olatu txikikoa da, Santa Klarako uharteak euste lana egiten baitu, uraren indarra baretuz. Zerbitzu eskaintzari dagokionez, komun eta konketadun aldagelak, konketak, komunak, arropazaindegia, dutxak, edateko ura ematen duten iturriak, megafonia eta argibide-taulak ditu, besteak beste, Ondarretak. Oro har, hondartza oso ondo ekipatua da, eta uretarako jostagailuak alokatzen dituzten hondartza donostiar bakarra. Toldo eta gainerakoak ere alokatzen dituzte, baina gehientsuenak hartuta egon ohi dira hondartza denboraldia hasi orduko. Bainua hartzeko eremua ur gaineko buiadun lokarri batez balizatuta dago. Gabarroi edo ur gaineko irla artifiziale ere badu, tranpolina eta pizina dauzka. Jolaserako instalazioaz



# ONDARRETA HONDARTZA

gain, segurtasunerako ere balio dezake. Bainu-eremua non bukatzen den markatzen du, aldi berean, gabarroiak. Diplomatiako hondartza Antzina, Defentsa Ministerioaren esku egon zen Ondarretako hondartza. Maniobra-eremua izan zen Armadarentzat. 1910az geroztik, orduan hasi berria zen abazioak ere egin zituen Ondarretan hamaikatxo saio. Kartzela ere eraiki zuten bertan, Espainiako Gerra bizi izan zuten askok oraindik ere gogoan izango dutena. Desagertu zen kartzela zorionez, baina oraindik ere, tarteka, agerian geratzen dira haren zimenduak. XX. mende hasierako kronikek diotenez, Ondarretan ez zuen eraginik Kontxan indarrean zegoen araudi zorrotzak. Horregatik, «*diplomatiako hondartza*» goitizena jarri zioten. Baina 1923ko uztailaren bizi izan zen Ondarretan diplomazia batere gabeko unea. Egun hartan, Palisse zirkuhezlea elefante eta guzti joan zen hondartza. Bururatu eta egin, erreparorik gabe...

38 urte eta Esther Williams aktore eta igerilariaren bainua behar izan ziren astakeria hura konpondu eta Ondarretari bere izen ona itzultzeko. Marearteko fauna Ondarretako ezkerraldeko haitzgunean, arroka arteko ur-puntzuetan, ez da zaila izkirak, zarboak eta kaluxak ikustea. Hondoan gordetzen dira sarritan, alga eta arrail artean. Oso ugariak dira, baita, itsas anemonak eta aktinia gorri eta berdexkak. Azken hauek, uretatik kanpo daudenean, erroak gordeta izaten dituzte eta kolore gorri ala berdeko bola itxura hartzen dute. Umeek, ikusitakoan, ukitu egin nahi izaten dituzte. Haurrei ahalik eta urrutien eutsi behar zaie. Esku barruarekin ukituz gero, ez da ia azkurarik igartzen. Baina erroekin –batez ere anemonak baldin badira– beste edozein gorputz atal ukitutakoan, azkura desatsegina nabaritzen da.



**Udalerrria: Donostia.**  
**Luzera: 1.350 m.**  
**Batez besteko azalera: 54.000 m2.**

Gipuzkoako kostaldeko hondartza-  
rik turistikoena da Kontxakoa.  
Bere edertasuna eta bainu-hartzaileei  
eskaintzen dien segurtasuna lagunga-  
rri ditu horretan.

Harea-pikor oso-oso fina eta xehea  
duelarik, atsegina da gainean ibili eta  
etzatea. Bainu-eremuko aldapa txiki  
eta mailakatuek, itsaslastar nabarmen  
ezak eta pixkanakako marea aldake-  
tek egiten dute Kontxako hondartza  
hain segurtasun handikoa.

Bainu-eremuan ez dago zulorik, ezta  
bapateko altuera aldaketarik ere.  
Itsasoari irekiak dauden hondartzetan  
ez dira hain ohikoak ezaugarri horiek.  
Kontxako hondartzak babes handia  
du, eta badia zoragarria egiten du.  
Urtero, hondar asko galtzen du  
Kontxak udazkenean eta neguan.  
Itsaslasterrekin Ondarretaraino eram-  
ten dute harea, eta hau asebate egiten  
da. Udan, berriz, alderantzizko lana  
egiten du itsasoak. Ondarretatik atera  
eta Kontxako hondartzara itzultzen du  
lapurtutako guztia, oreka gordez.

Kontxak 110.000-120.000 metro koa-  
droko zabalera du itsasbeheran, baina  
itsasgoran erabat txikitzen da: 11.000  
metro koadro. Urak goian daudenean  
15 metro baino ez dira izaten itsaser-  
tzaren eta Kontxa gaineko pasealekuaren artean. Urak oso  
biziak direnean, ia hondartza osoa geratzen da urpean.  
Ez du bazter arrokatzen, bere eskuinaldea –betiere hondar-  
tza-itsasora begiratuz– Kontxako pasealekuko murrain  
bukatzen baita. Ezkerreko muga Loretope izeneko haitza da.  
Hark bereizten ditu Kontxa eta Ondarretako hondartzak.

#### Marmoka ugari

Ia ez du marearteko fauna. Aldiz, marmoka edo medusak uda  
erdialdera eta bukaeran heltzen dira hondartzara, itsaslaster-  
rekin bultzatuta. Marmoka etorrera handia izan denean,



## KONTXA HONDARTZA

1993an adibidez, neurriak hartu izan ditu  
Donostiako Udalak. Sarea ere jarri izan da haiei  
oztopo egiteko.

Windsurfa eta piraguismoa egiteko oso hondartza  
aproposa da. Aldagelak, konketak, dutxak, iturriak,  
oinak garbitzekoak eta komunak ere baditu, baita  
bi gabarroi ere. Itsasertzetik metro batzuk barrura-  
go jarriak, tranpolina eta pizsina dituzte.  
Segurtasun-balizajea izan zuen lehen euskal hon-  
dartzetako bat da Kontxakoa. 1980tik dauka. Ur  
gaineko kortxo ilararen helburua –lokarri batek lo-  
tzen ditu guztiak– bainua noraino har daitekeen  
markatzea da. Ezin da handik kanpora irten.

#### Loretope

Loretope: hauxe da Kontxa eta Ondarretaren arteko mutur-  
txoaren izen jator eta zuzena, nahiz eta –gaztelaraz zein eus-  
kara antzekoan– Pico del Loro esan gehientsuenek Miramar  
jauregiaren azpiko harkaitz mordoxka horri. Izan ere, deitura  
horren egokitasuna bermatzeko edo bada muturtxoaren itxu-  
ran loro baten mokoa ikusi nahi duenik, baina paraje horretan  
ez da inoiz lororik izan. Bai, ordea, Loretope Ama Birjinari  
ezin eskaintako ermita. Hortik datorkio, hain zuzen, Loretope izen  
ezin aproposagoa.

Itsasoa oso gora ez dagoenean, pasabide bikain bilakatzen  
da Loretope bi hondartzak elkartzeko. Kontxa eta Ondarreta  
bat egiten diren unearen zain egon ohi dira, hain zuzen, itsasertzean gora eta behera ibil-  
tzea gogoko dutenak...

Itsasbeheran, harkitzen aurreko hareatza ere  
agerian geratu ohi da maiz, eta inguruetan  
umeez oso gustuko dituzten puntutxoak sor-  
tzen dira. Basati itxura duen hondartza zatitxo  
baten ilusioa ere sor daiteke askotan.  
Nolanahi ere, adi ibili behar da marea aldake-  
tekin inguru honetan, bat baino gehiago gera-  
tu baita bertan ezin irtenda itsasoak gora egin  
duenean. Bestalde, ekaitzek gogor egin due-  
nean, muturtxo honen inguruko uretan zurrun-  
bilo eta korronte ugari egon ohi da, eta bainu-  
rako une egokia dirudien arren nahiko arris-  
kutsua da.

## ONTZIOLETAKO LANGILEEN LOGURA

Donostiako historiak hainbat pasarte xeblebre ditu.  
Ilundutakoa, harresiko ateak itxi egiten zituzten, eta Santa  
Katalinako ontzioletako langileak etxera itzuli ezinda geratzen  
omen ziren. Kontxako hondartzak ere baditu bitxikeriak.

Javier María Sada, kronistak dioenez, Donostia balio militar  
handiko hiria izan zuen hainbat mendetan. 1863an haresiak  
eraistea erabaki zen arte, gaur egun Boulevarda dagoen  
tokian bukatzen zen hiria. Gaua sartzen zenean harresiko  
ateak itxi, eta hurrengo egunera arte ez zituzten irekitzen.  
Horrek kalte handiak eragiten zizkien Santa Katalina kale  
parean zegoen izen bereko ontzioletako langileei. Aparteko  
lan orduak egiten geratu edota edozergatik atzeratzen zirene-  
an, ezin izaten zuten joan etxera lotara.

Ontziolei konponbidea topatzeko, harresietatik kanpo eraiki-  
tzeko, harresietatik kanpo eraikitzeke debekua bertan behera  
utzi eta auzo berria egin zen zonalde hartan, eliza, kanposan-  
tu eta guzti.

Wellingtonen tropek birrindu egin zuten Santa Katalina auzoa  
1719ko hiriaren setioan. Ez da harritzekoa, beraz, Okendoko  
lurpeko parkinga egin zutenean Santa Katalinako hilerikoak  
izan zitezkeen gizaki hezur eta hondakinak agertu izana.


San Martin inguruan ere bizi izan zen jendea, harresitik kanpo.  
Hiriak jasandako sute baten ondoren eman zien kaltetuei  
zonalde hortan etxeak egiteko baimena. Kanpotarrak  
Donostiara gauez heltzen zirenean, Aldapetatik behera jaitsiz  
– hura zen bide nagusia –, San Martingo donostiarrek osatu  
eskaintzen zieten, bai baitzekiten hiri barrura ezin zela hain  
berandu sartu. Honela sortu ziren bentak.

Etxe haiek 1902an bota zituzten, eta haien gainean eraiki ziren  
epaitegiak eta alondogia.

Sadak aipatzen du, baita, Hemanik portua izan zuela, Urumea  
ibaia haraino nabigarria zelako.

#### Kontxako historia

1829koak dira Kontxako hondartzan hartutako bainuen lehen  
aipamenak. Bainuetan ematen ziren gehiegikeriak saihesteko  
asmoz bandoa kaleratu zuen Donostiako udalak. Emakumeek  
bainua zein ordutan eta zein tokitan hartu zehaztu zuen ban-  
doak. Gauza bera egiten zuen gizonekin. Elkarrekin bainua  
hartzea debekatuta zuten. XX. mendeko 20.eko hamarkadara  
arte, sendagaia baino ez zen bainua eta jendeak ihes egiten  
zuten eguzkitatik. Aurpegiko larruazalari zuri-zuri eutsi behar  
zitzaion. Kontxako bisitari guztiek lastozko kapela gogorak  
edo txano zuriak janzten zituzten. Bainuak ez ziren bi astez  
jarraian hartu behar, orduko ohituren arabera. Aste batean itsa-



soko uretan ibiliz gero, hurrengoan atsedena hartu behar zen.

#### Hamar lege bainurako

Lotsa gutxiko ohiturak saihesteko eta itsasoko-bainuek eragi-  
na izan dezaten, XX. mendearen hasieran bainu-hartzaile ego-  
kiaren dekalogo kaleratu zen. Honako hauek ziren egin beha-  
rrekoak.

1. Itsasoko uretan sartu aurretik premiazkia da gorputza era-  
bat deskantsatuta eta azala izerdi tantarik gabe izatea.
2. Ez jan ezer bainua hartu aurreko hiru orduetan. Nahitaezko  
baldintza da.
3. Bat-batean sartu behar da uretan, gorputz osoa gainera.  
Burua busti behar da, eta ez behin bakarrik. Maiztasunez sartu  
behar da burua urpean, bat-batean eta oso-osorik, ez poliki eta  
beldurrez. Honela, burmuin eta biriketako kongestioak saihe-  
stuko dituzu. Higienearen aurkakoa da ilea ez bustitzekok txano  
iragazgaitzak janztea.
4. Bainuak, bizkagarria izan dadin, ez du behar bost edo  
hamar minutu baino luzeagoa. Gorputz sendoko lagunek den-  
bora gehixeago eman dezakete uretan. Dena dela, bigarren  
erreakzioaren lehen hotzikara igarri bezain laster, irteten egin  
behar da uretatik. Kontuan izan uretan sartu zenetik bi minutu  
igartitakoan ematen dela lehen erreakzioa; eta hamabost minu-  
tu daramatzazunean, berriz, heltzen da bigarrenaren txanda.  
Ariketak eginez atzera daiteke bigarren erreakzioa.
5. Bainurako jantziak arina eta gorputzari ondo itsatsia behar  
du, txabusina eta gehiegi estutzen ez duten gerrikoak uraren  
ekintzaren aurkakoa direlako eta bainu-hartzailearen mugi-  
menduak eragozten dituelako.
6. Uretatik irtendakoan, ur-geza garbitan busti bizkor, jantzi  
arropak segituan eta hariketa txiki batzuk egin. Ondoren, hartu  
kafea ala edari lurrinsuren bat, eta zerbait gogorra jan.

7. Edozer izaera eta gorpuzkeradun lagunentzat apro-  
posa da itsas-bainua. Higiene onerako lagungarria iza-  
teaz gain, hainbat gaixotasun sendatzeko gaitasuna  
terapeutikoa ere badu.

8. Itsas-bainuak, ipar aldean, oso-oso kaltegarriak dira  
linfatiko, anemiadun eta pertsona bereziki ahulentzat,  
uraren tenperaturak zorigaitzoko aldaketak eragiten  
baitizkiete honelakoei. Nerbio-sistemak, adibidez, kalte  
handiak jasaten ditu. Beraz, horrelako arazoren bat  
duten lagunek ezin dira Kantauri Itsasoko uretan bai-  
natu.

9. Gorpuzkera ahuleko lagunek hobe dute  
Mediterraneo itsasora joatera.

10. Goizeko orduak, gorputza nekatu aurrekoak, dira  
bainua hartzeko egokienak. Goizeko 10etarako bainua  
hartua izatea komeni da.



**Udalerrria:** Donostia.  
**Luzera:** 800 m.  
**Batez besteko azalera:** 88.000 m<sup>2</sup>.

Gros auzoan, Urumearen bokaletik Mompas muturraren arteko eremua hartzen du Zurriolako hondartzak. 1995ean erabateko aldaketa izan zuen, handitze-lanak burutu baitziren bertan. Besteak beste, bereizi egin ziren hondartza eta Urumearen bokalea, 503 metroko morrua erakiz. Luzera eta azalera hirukoiztu egin ziren, eta egun 800 metroko luzera eta 110 zabalerarekin du itsasbeheran. Itsasgoran 40 metrora murrizten da hondartzaren zabalerarekin. Milioi bat eta ehun mila kilo itsas-harea bota ziren orduan. Harea oso fina da, 0,33 milimetroko pikorrak baititu. Hondartza ia artifiziala izanik, harearekin gorabehera handiak izaten dira, oraindik ondo asentatu gabe dagoelako. Zenbaitetan, itsasoak kiloak eta kiloak eramanez egiten ditu. Beste batzuetan, berriz, beste horrenbeste pilatu.

Gros auzoko hondartza itsasertzean paseatzeko proposa da, baita eguzkia hartzeko ere, arratsaldeko azken ordura arte ailegatzen baitira bertara izpiak. Haizetsua ere bada, eta olatuek bete-betean jotzen dute. Ondorioz, itsas-kiroletarako egokia da: surfa, bodyboarda, windsurfa eta, itsaso barearekin, baita piraguismoa ere. Bere zabalerarekin, hainbat hondartza-kirol –boleibola, pala...– egiteko guneak prestatu dituzte. Zoru gorabeheratsua du eta itsaski egunetan tiraina eta itsaslaster asko sortzen dira. Zulo eta aldapa ugari egiten dituzte, uretara doana arriskuan jarritz. Horrelako egunetan bainua arretaz hartzea gomendatzen dute. Morru luzeak lehen zuena baino babes handiagoa eskaintzen badiu ere, Donostiako



hondartzarik arriskutsuena izaten jarraitzen du Zurriolako. Itsasoari hain irekia egoteak arazoak sortu ditu azken urteotan. Aurtengo neguan, esate baterako, kalteak eragin zituzten zerbitzuak hartzen dituzte eraikinetan. Urtero gertatzen da antzeko zerbaitekin, gizakiak ez baitu oraindik Donostiako hondartzarik basatiena izandakoa erabat menperatzea. Eskuinaldean, Mompaseko

magal barrenean, gune arratsalean, itsas-fauna ugaria duena. Hainbat tarteetan eta urmaretan, beste hondartza batzuetan ere ohiko diren krustazeo, molusku eta antozooez gain, iktiofauna du, batez ere blenido eta kabuxa familietako arrainak. Marearteke zabalgune honetan sei espezie sedentario bizi dira, hala nola *Blennius incognitus* eta *Blennius picornis*. Ozeano Atlantikoaren Europako kostaldean agertutako espezie honetako lehen arrainak izan ziren Mompas barrenekoak.

Egiturari aldetik, oso hondartza berria da Zurriolako, inguruan ondo ikus daitekeenez. Lau arrapala ditu oinezkoentzat, mugikortasun mugatukoentzako prestatutako pasabide zurrinak hondar gainean, haurrentzako jolasguneak, kafetegia, dutxak, ontziak gordetzeko biltegiak, iturriak, zakarrontziak, komunak... Alokairuko hamaka gunea duen Donostiako hondartza bakarra da Zurriola. Hamakak eta eguzkitakoak alokatzen dituzte, hain zuzen ere, gune horretan. Pasealekuak diseinu garaikideko baranda dauka, eta zoruak kuartzitazko lauzak. Luzea da gainera pasealekua, 1.100 metrokoa. Eta, hondartzaren gain-gainean, Kursaal ikusgarria...



**Udalerrria:** Hondarribia.  
**Luzera:** 700 m.  
**Batez besteko azalera:** 162.400 m<sup>2</sup>.

Hondarribikoa da babes handienetakoa duen gipuzkoar hondartza. Bidasoa ibaia itsasoratzen den lekuan dago.

700 metroko luzera du eta zabalerarekin, berriz, 232 metrokoa batez beste. Hori bai, itsasbeheran 350 metro ere hartzen ditu. Ez dago Gipuzkoan hain azalera handiko beste hondartzarik. Bainu-hartzaileari segurtasun handia ematen dio herrigunetik oso gertu dagoen hondartza honek. Eskuinaldean, kai-muturraren babesa du. Bidasoa ibaiaren bokaletik ere bereiztu du aipatu morruak, itsaslasterak saihestuz. Baina ez du hori babes bakarra. Hondarribiko portuaren olatu-hormari esker olaturik ez da ia heldu ere egiten hondartzara, eta harea mugimendurik ez da izaten.

Aldapa handirik ere ez dauka, hondartza pixkanaka-pixkanaka sartzen baita uretan. Segurtasun handikoa da benetan Hondarribiko hondartza, eta lasaia. Gogoko dute bainu-hartzaileek, windusurflariak eta piraguiak, baina ez horrenbeste surflariak. Ia ezinezkoa da ur haie tan surfa egitea, sagailo edo itsaski handiko egun bakanetan izan ezik. Horregatik, surflariak nahiago dute Hendaia hondartza –Hondarribitik oso gertu–, itsasora zeharo irekia delako.

Udan, tranpolindun gabarroia jartzen dute Hondarribiko bainu-eremuan. Beste hainbat zerbitzu ere baditu, tartean udan soilik irekita egoten diren hondar gainean jarritako tabernak. Industri, hiri eta nekazal isurketarik ez izateari esker, hainbat aldiz eman diote europar bandera urdina oso ur gardenak dauzkan Hondarribiko hondartzari. Bainu-eremu pare-parean, ur gaineko kortxodun hesiarekin ondo markatua eta mugatua, klub nautikoa dago, eta belarekin zerikusia duten jarduerak antolatzen dituzte.

Hondartzaren eskuinaldean, arroka gunea, marearteke



## HONDARRIBIA HONDARTZA



fauna bitxi eta ugariaren bizilekua, gelditzen da begibistan itsasbeheran. Antzina, Hondarribiko hondartzak duna eta hondar-bankua zeuzkan, baina morru eta etxebizitzaren erakuntzak desagerrarazi egin ditu. Kirol portu berria egin dute Hondarribian, lehen hondartzaren goiko aldeko belardia zegoen lekuan. Hondartza aurrean zeuden ontzi gehienak portu barrura sartu zituzte. Kirol portuak aldaketa handia eragin du, beraz, hondartza inguru guztian.

### Hendaia hondartza

Hondarribitik oso hurbil, Bidasoa ibaiaren beste ertzean, aukera polita dago hondartzazaleentzat: Hendaia. Itsasoak bete-betean jotzen du Hendaia hondartza, eta itsasoa haserre dagoen egunetan aparteko arreta behar da, olatuek eragindako tirain eta itsaslasterrek direla eta. Ezkerrean, Bidasoaren bokale ondoko aldea, da tokirik arriskutsuena. Morru artifiziala badago ere, itsasertzetik asko urrutiratuz gero, itsaslasterren menpe gera daiteke bainu-hartzailearentzat. Luzea izanik, paseatzeko, surfa zein windsurfa egiteko, eta naturismorako proposa da Hendaia. Bitxiak eta ederrak dira hondartzaren eskuinaldean dauden haitz higatuak, dorre zaharren antzeko antz handia dutenak.





Bilboren ardatzak dira  
#kulturartekoa, #unibertsala,  
#inklusiboa, #etorkizuna,  
#sortzailea, #parte-hartzailea,  
#berdinzalea... Bilboko biztanle  
bakoitza hobeto bizi dadin  
egunero lan egiten duen hiria da.

Bilbao es una ciudad  
#intercultural, #universal,  
#inclusiva, #futuro, #creativa,  
#participativa, #igualitaria...  
Una ciudad que trabaja todos los  
días para que cada habitante de  
Bilbao viva mejor.

## #BilbaoLagunkoia #BilbaoAmigable

**Bilbo zurekin, Bilbo zurea.**  
*Bilbao forma parte de tu vida,  
tú formas parte de Bilbao.*



**B**  
**Bilbao**